

UPV/EHU

EUSKARAREN IRAKASKUNTZA BALIABIDEAK

IDATZIZKO IRITZI-GUTUNA LANTZEKO
SEKUENTZIA DIDAKTIKOA

IKASLEA: ITXARO ETXAGUE GOIA

TUTOREA: LEIRE DIAZ DE GEREÑU LASAGA

Euskal Ikasketetako Gradua 2015-2016

Graduko jakintza-arloa: Euskararen Didaktika

LABURPENA

Argudiatzea eguneroko hizkuntza jardueretako ekintza dugu: gustatu zaigun film bati buruzko kritika egiten ari garenean, eztabaidan ari garenean, mahai-inguru batean parte hartzean... Gu geu beti kontziente ez bagara ere, horixe ari gara egiten, argudiatzen. Dena den, Larringan (1992a) lanak azaltzen digun bezala, argudiatze praktika hauek anitzak eta ezberdinak dira, inguru sozialaren arabera alda baitaitezke eta, ekoizpen inguru honek eraginda, testu-genero ezberdinetan gauzatzen baitira.

Egungo eskola curriculumetan egiten den eskaria kontuan izanen dugu lan honetan. Izan ere, testu-generoak lantzea eskatzen da, horien artean argudio-testuak. Behar sozial berriei erantzun nahian, bai ahozko eta bai idatzizko edukietan argudiatzen trebatzea zedarritzen da. Azpimarratzekoa da argudiatze hau testu-genero bidez ekoiztu beharra ere aipatzen dela, testu-generoen berezko ezaugarri eta baliabideak bereziki baloratzuz (Nafarroako Foru Komunitateko Foru Dekretua, 25/2015).

Testu-generoa dugu, bada, eskola praktiketarako erreminta eta baliabide: tresna kulturala da, norbanakoaren eta objektuaren arteko elkarreraginaren bitartekoa; erreminta didaktikoa, ikas-irakasteko objektuen zubi lana egiten duena; jardun linguistikoa bideratzen du, bai edukien eta bai komunikazioaren ikuspuntutik; eta azkenik, irakasleari irakaskuntza prozesua gidatzen laguntzen dio (Dolz eta bertze, 2013).

Lan honen ardatz izateko iritzi-gutuna aukeratu da. Argudiatze oro bezala, testu-genero hau ere testuinguruari erabat lotuta dagoen jarduera da, ekoizleak hartzailea konbentzitzea baitu helburu (Camps, 1995; Cuenca, 1995). Hau lortzeko, iritzi-emaileak hartzaile hauen irudikapen bat egin beharko du bere ekoizpenean, idatzizko hizkuntza-ekintza izanik, hartzaileak ez baitira bertatik bertarako komunikazio egoeran egonen. Genebako Sekuentzia Didaktikoaren metodologia jarraituko dugu (Dolz eta bertze, 2013; Larringan & Idiazabal, 2012) goian azaldutako irakaskuntza beharrak era metodikoan bideratzeko.

Lanaren antolaketari dagokionez, elkarloturik dauden bi atal nagusi izanen dira: atal teorikoa eta atal praktikoa. Lehenbiziko atalean, argudiatzeak Nafarroako D ereduko Batxilergoko Curriculum ofizialean duen lekua ikusiko da. Halaber,

irakaskuntzarako tresna eta baliabide nagusia testu-generoa izan behar dela azalduko da. Izan ere, testu generoaren bidez, ikasleak bere gaitasun linguistikoak garatu eta hobetzeko aukera izanen du, bertzeak bertze. Ondotik, testu-generoen artean argudio-testuetara bilduz, idatzizko argudiatzeren berezko ezaugarriak aipatuko dira. Atal teorikoarekin bukatzeko, Genebako eredu jarraitzen duen Sekuentzia Didaktikoaren metodologiaren ezaugarriak ekarriko dira.

Bigarren atalean, idatzizko iritzi-gutuna lantzeko lau moduluz osatutako Sekuentzia Didaktikoa diseinatu da. Hau egiteko, lehenik, bildutako corpusaren analisi eta azterketa zehatza egin da, bertako gaitasun eta gabezi nabarmenenak aipatuz. Corpus hau biltzeko banatutako kontsignaren azterketa ere egin da. Ikasleen iritzi-artikuluak idazterakoan erakusten dituzten gaitasun eta gabezi errealetan oinarrituta eraiki baitira, izan ere, aipatu lau moduluak.

Lanaren amaieran, azkenik, ondorioak azalduko dira.

AURKIBIDEA

| | |
|--|-----------|
| LABURPENA | 1 |
| 1. SARRERA | 4 |
| 2. ATAL TEORIKOA..... | 4 |
| 2.1. ARGUDIO TESTUA IRAKASKUNTZAN..... | 5 |
| 2.2. TESTU-GENEROA IRAKATS OBJEKTU GISA | 8 |
| 2.3. ARGUDIAKETA | 10 |
| 2.4. SEKUENTZIA DIDAKTIKOA | 13 |
| 3. ATAL PRAKTIKOA | 16 |
| 3.1. IKASLEEN PROFILA ETA KONTSIGNAREN AZTERKETA..... | 16 |
| 3.2. CORPUSAREN ANALISIA | 19 |
| 1.2.1. Testuaren batz-bertzeko gainbegiratuan | 19 |
| 3.2.2. Testuaren atal nagusien azterketa..... | 29 |
| 3.2.3. Argudiozko diskurtsoaren eragiketak..... | 37 |
| 3.3. SEKUENTZIA DIDAKTIKOA | 43 |
| 1. MODULUA: Iritzi testuak ezagutzen: iritzi-gutuna | 45 |
| 2. MODULUA: Iritzi – gutunaren sarrera eta ondorio atalak..... | 53 |
| 3. MODULUA: Modalizazioa | 60 |
| 4. MODULUA: Bukaerako ekoizpena..... | 63 |
| 5. ONDORIOAK..... | 64 |
| 6. BIBLIOGRAFIA..... | 65 |

1. SARRERA

Lan honetan, idatzizko argudiatzearen adierazpena eta iritzi-gutunaren testu-generoa lantzeko Sekuentzia Didaktiko¹ bat eraiki da, zehazki, Nafarroako D ereduko Batxilergoko lehenbiziko mailako ikasle talde batek ekoiztutako testuek erakusten duten gabezi eta gaitasunetan oinarrituta. Genebako eskolako metodologia (Dolz eta bertze, 2013; Idiazabal & Larringan, 2012) hartu da oinarri, hots, ikasle jakinen beharretara egokitzen den irakaskuntza metodologia zehatza eta irakats objektu eta helburua testu-generoa duena.

Lanaren egiturari dagokionez, bi atal nagusi izanen ditu: lehenik atal teorikoa eta, bigarrenik, atal praktikoa. Atal teorikoan, argudiatzearen eta, batez ere, idatzizko argudiatzearen berezko ezaugarriez gain, honek irakaskuntzan duen lekua lantzen da, baita eskoletan testu-generoa tresna didaktiko gisa erabiltzeak dituen onurak ere. Bigarren atalean, berriz, bildutako corpusaren ekoizpenerako erabili den kontsigna aztertu ondotik, bildutako corpusaren azterketa aurkezten da. Ondotik, iritzi-gutunaren ekoizpenean ikasle talde jakin honen gabezi nagusiak gainditzea helburu duen SDaren diseinua eskaintzen da. Azkenik, ondorioak zehaztuko dira.

2. ATAL TEORIKOA

Atal honetan argudiatzearen berezko izaera eta ezaugarriak bilduko dira, baita honek Nafarroako Curriculumean duen lekuaren azterketa ere. Izan ere, argudiatzea eguneroko jarduna izateaz gain, Curriculumean gero eta gehiago aipatu eta eskola praktiketan gero eta landuagoa den testu moldeak dugu. Bertzalde, argudiatze pedagogia honen oinarrian testu-generoaren ikuspegia hartzearen arrazoiak azalduko dira (Dolz eta bertze, 2011), hots, testu-generotik unitate gramatikalerako ibilbideak gidatzen duela irakaskuntza metodologia hau.

¹ Hemendik aitzinera SD laburdura erabiliko da.

2.1. ARGUDIO TESTUA IRAKASKUNTZAN

Larringanek (1992a) erraten digunaren arabera, hizkuntza irakaskuntzan gero eta gehiago hitz egiten da testu-generoez: dela narraziozkoak, dela deskribapenezkoak, dela azalpenezkoak, dela argudiozkoak... Azken hauek, eguneroko hizkuntz jardueretan uste baino presenteago ditugu: eztabaidan aritzerakoan, iritzi okerrak aldatu nahi ditugunean, gurea dena defendatzen ari garenean... horixe ari baikara egiten, argudiatzen. Dena den, argudiatze praktikak heterogeneo eta desberdinak dira, eremu sozialaren arabera alda daitezke, eta ekoizpen egoerak sortzen dituen beharrak eraginda testu-genero ezberdinetan gauzatzen da haien ekoizpena.

Gizarte mailan bai, baina hizkuntzen irakaskuntzan ari garenean ere horren presente al dago argudio testua? Salbuespenak salbuespen, Larringanek (1992a) ematen digun informazioaren arabera, eskolan tradizio handiagokoak izan dira narrazio eta deskribapen testuak, batez ere mailarik baxuenetan. Azken urte hauetan, ordea, eskola eta, oro har, irakaskuntza praktikak aldatu egin dira, bertzeak bertze, argudiozko testuak lekua hartzen joan direlarik.

Nafarroako Foru Komunitateko Batxilergoko Curriculumera jo dugu D ereduko batxilergoko lehenbiziko mailan argudio testuari buruz zer, nola eta zenbateraino eskatzen den ikusteko, baita honen ebaluazioa zein den argitzeko ere. Maila honetan egiten den curriculumeko eskariari begiratuko diogu bereziki, hain justu, gero sekuentzia didaktikoa eraikitzeko baliagarri izango zaigu eta. Ondorengo lerrootara Curriculumean argudio testuekiko ikusi ditugun aipamen, eskari eta zehaztapenak ekarri dira (Foru Dekretua, 25/2015). Hasteko, lehenbiziko multzoari erreparatuko zaio, hots, ahozko komunikazioa dagokionari:

| EDUKIAK | EBALUAZIO IRIZPIDEAK | EBALUATU BEHARREKO IKASKUNTZAKO ESTANDARRAK |
|---|--|---|
| 1. MULTZOA: AHOZKO KOMUNIKAZIOA: ENTZUTEA ETA ULERTZEA, HITZ EGITEA ETA ELKARRIZKETAN JARDUTEA | | |
| Ahozko azalpen eta argudiozko testuak. Esparru akademikoan | Idatziz laburbiltzea ahozko azalpen eta argudiozko testuen edukia, bertzeak bertze, gai espezializatuen ingurukoak, hitzaldiak, klaseak, solasaldiak, | ULERTZEN DU: - Esparru akademiko/zientifiko, kultural, sozial eta lanekoetan berezkoak diren ahozko testuen zentzu orokorra ulertzen du, bereziki azalpen eta argudiozko diskurtso formalak, informazio |

| | | |
|--|---|---|
| berezkoak diren ahozko testu-generoak . | bideokonferentziak...; informazio garrantzitsua eta bigarren mailakoa bereiztea; eta entzute aktiboa erabiltzea ezagutzak eskuratzeko bitarteko moduan. | garrantzitsua identifikatuz, gaia zehaztuz eta hizlariak nor diren ohartuz. - Gizarte hedabideetatik datozen informazio eta iritzi genero nagusien berezko bereizgarriak ezagutzen ditu. ELKARREKINTZAN ARITZEN DA: - Kritikoki aztertzen ditu hedabideetatik datozen eztabaida eta solasaldiak , haietan emandako argudioen baliozkotasuna ezagutzen du, eta kritikoki baloratzen ditu haien forma eta edukia. |
|--|---|---|

Ikus dezakegun bezala, ahozko diskurtso formalen zentzu orokorra ulertzea eskatuko zaio ikasleari, baita gizarte hedabideetatik hartutako iritzi generoen bereizgarriak ezagutzea ere. Ulertzeaz gain, ekoitzi ere egin beharko du ikasleak, eztabaida edo solasaldietan parte hartzea eta beharrezko argudioak kritikoki baloratzea ere eskatzen baitu Curriculumak. Honetarako erabiliko diren edukiak testu-generoetan oinarrituak egonen dira, zehazki, argudiozko testu-generoetan. Ebaluazioari begira, ahozko argudiatze jardunetan jasotakoa idatziz bildu eta laburbiltzea baloratuko da, baita honetarako beharrezkoak diren baliabideak erabiltzea ere.

Jarraian datorkigun multzoa idatzizko komunikaziori buruz ari zaigu:

| EDUKIAK | EBALUAZIO IRIZPIDEAK | EBALUATU BEHARREKO IKASKUNTZARAKO ESTANDARRAK |
|--|--|--|
| 2. MULTZOA: IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA: IRAKURTZEA ETA IDAZTEA | | |
| Gizarte hedabideetatik datozen testu idatziak ulertzea, ekoiztea eta antolatzea: informazio, iritzi eta publizitate generoak . | - Informazio eta iritzi mailako kazetaritza eta publizitate testuak irakurtzea, ulertzea eta interpretatzea komunikazio asmoari antzemanaz, generoaren berezko ezaugarriak eta erabilitako hitzezko zein ez-hitzezko baliabideak identifikatuz eta testuen forma eta edukia era kritikoan baloratuz. - Gai espezializatuetak | IRAKURTZEN ETA ULERTZEN DU: - Irakurketarako estrategia desberdinak erabiltzen ditu helburuaren eta testu motaren arabera, esparru akademiko/zientifiko, kultural, sozial eta lanekoetan berezkoak diren eta asmotzat azalpen edo argudio formala duten testuetan . - Integratzen eta interpretatzen du: protagonistei, argudiamenduei eta tokiei buruzko informazioa konparatzen eta alderatzen ditu. - Testuaren edukiaren gainean hausnartzen du: testuko argudioa indartzen edo |

| | | |
|--|---|---|
| | <p>azalpen eta argudiozko testuen edukia laburbiltzea, informazio garrantzitsua eta bigarren mailakoa bereiziz eta irakurketa ezagutzak eskuratzeko bitarteko gisa erabiliz baloratuko da.</p> | <p>ezeztatzen duten ordezeko datuak edo datu osagarriak ematen ditu bere esperientzian edo kontsultako lan inprimatu zein digitalean oinarriturik.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Informaziozko eta iritzi kazetaritza testu idatzien edukia laburbiltzen du, informazio garrantzitsuena bereiziz eta gaiari eta testuaren egiturari antzemanez, eta kritikoki baloratzen ditu testuaren forma eta edukiak. <p>IDAZTEN DU:</p> <ul style="list-style-type: none"> - koherentzia: testu idatzietan, bereziki esparru akademikoan edo hedapen zientifiko eta kulturean berezkoak diren azalpen eta argudiozko testuetan, testu mota horren berriazko egitura errespetatzen du, edukia ongi adierazten duen izenburua bat idazten du, gaiaren inguruko ideiak ongi antolatzen ditu paragrafotan banatuta, eta gaien aurrera egiten du sekuentzia linealean. Aipua egiteko prozedurak nolabaiteko zehaztasunez erabiltzen ditu (estilo zuzena, zeharkako estiloa edo zeharkako estilo librea eta ezkutuko aipua). |
|--|---|---|

Idatzizko komunikazioari erreparatu, batetik, argudio formala duten testuetan irakurketarako estrategia desberdinak erabili beharko ditu ikasleak, argudio-bideak konparatu eta aztertuz eta kazetaritza esparruko argudio testuak kritikoki baloratu eta laburtuz. Bertzetik, idatzizko argudio testuetan koherentziaz aritzea eskatuko zaio, testu-generoaren berriazko egitura eta ezaugarriak errespetatuz eta erabiliz. Hemen ere iritzi-generoa izanen da erabiliko den eduki edo baliabidea. Ebaluazioari dagokionez, kazetaritzatik datozen iritzi mailako testuen komunikazio asmoa eta generoaren berezko ezaugarriak antzematea baloratuko da, baita testuaren edukiak era kritikoki aztertzea eta garrantzitsuena dena eta bigarren mailakoa dena bereiztea eta laburbiltzea ere.

Azkenik, hizkuntzaren ezagutzari buruz diharduen multzoa dugu:

| EDUKIAK | EBALUAZIO IRIZPIDEAK | EBALUATU BEHARREKO IKASKUNTZAKO ESTANDARRAK |
|-------------|---|--|
| 3. MULTZOA: | HIZKUNTZAREN IKASKUNTZARI BURUZKO GOGOETA | EZAGUTZA. HIZKUNTZAREN |
| | | - Ezagutzen eta azaltzen ditu narrazio, deskribapen, azalpen eta argudiozko |

| | | |
|--|--|---|
| | | testuen egiturako eta hizkuntzako bereizgarriak. |
|--|--|---|

Maila linguistikoan, beraz, ikasleak argudiozko testuak ezaugarritzen dituzten egitura eta baliabide linguistiko berezituak ezagutu eta erabili beharko ditu.

Laburbilduz, goiko tauletan jaso dugunetik ondoriozta dezakeguna zera da: Nafarroako Curriculum ofizialak eskari sozialari erantzun eta argudiatzeari bere lekua eskaintzen diola bai ahozko eta bai idatzizko edukietan. Argudiatze hau testu-genero baten baitan eta honen bidez ekoiztu beharra dagoela ere aipatzen da. Ebaluazio irizpideetan ere hauxe islatzen da, hain zuzen ere, testu-generoaren berezko ezaugarriak eta baliabideak baloratzea eskatzen baita.

Testu-generoak, bada, irakaskuntza metodologiaren ardatz eta helburu izanen ditugu. Ideia honetan oinarritzen da, hain zuzen ere, Dolz eta bertzeren (2013) lana. Bertan, SDaren metodologia bereizgarria eratu dute autoreek, ondorengo atalean ikusiko dugun moduan, eta testu-generoak irakasgarri egiteko metodologia zehatza eskaintzen digute.

2.2. TESTU-GENEROA IRAKATS OBJEKTU GISA

Dolz eta bertzeren (2013) lanaren arabera, idatzizko adierazpena aztertzekeo testu-generoa izan behar dugu oinarri. Hiru arrazoi ematen dizkigute hau defendatzeko (Dolz eta bertze, 2013):

1. Proposamen didaktikoan ikasleei eskatuko zaien lana egoera komunikatibo batean kokatu behar delako. Hizkuntza bat egoera komunikatiboen arabera aldatzen den hizkuntza ekoizpenen bidez ikasten da, hots, testuen bidez. Testuen bidez komunikatzen gara, ez esaldi hutsen bidez. Beraz, hizkuntza ekoizpenaren irakaskuntzaren oinarria testua da, baina baita irakurketa eta ulermenarenarena ere.

2. Sozialki onartu eta erabiliak diren hizkuntza jardunak ezinbertzekoak direlako hizkuntzaren irakaskuntzan. Ikuspegi honetatik, testu-generoak berbazko praktiken elementu formal eta erregularrak egonkortzen dituzten bitartekariak dira.

3. Testu generoa, irakats objektua izateaz gain, baliabide kultural eta didaktikoa ere badelako. Generoek eduki, egoera komunikatibo edo unitate linguistikoen arabera testuak sailkatzeko aukera ematen digute.

Arrazoi hauek kontuan izanik, testu generoak ikasgelarako erreminta eta baliabide ditugu. Erreminta didaktikoaz ari garenean, Dolz eta bertzeren (2013) lanean aipatutako definizioa gure egiten dugu, hots, ikasgela barruan ikas-irakaskuntza helburu zehatz bati lotuta zenbait nozio edo kontzepturen irakaskuntzarako erabiltzen den tresna oro. Ikuspuntu honetatik begiratuta, autoreen arabera, generoa egoera linguistikoetan erabiltzeko baliatu beharreko tresna da, berarekin baitakar ariketak sortu eta garatzeko aukera.

Laburbilduz, testu generoa, batetik, tresna kulturala da, norbanakoaren eta objektuaren arteko elkarreraginaren bitartekoa baita; bigarrenik, erreminta didaktikoa ere bada, jardun sozial eta ikas-irakasteko objektuen zubi lana egiten baitu. Jardun linguistikoa bideratzeko balio du, bai edukien ikuspuntutik begiratuta baita egoera komunikatiboarenetik ikusita ere. Azkenik, irakaslearengan ere eragina du, bere ekoizpen testuala eta honen irakaskuntza prozesua generoan oinarritu behar baita. Finean, testu generoaren bidez, ikasleak bere gaitasun linguistikoak garatu eta hobetzeko aukera izanen du.

Amaitze aldera, gogora dezagun, irakaskuntzaren arloan eta testuen aniztasun eta heterogeneotasunari begira, testu generoen banaketan oinarritzeak irakats objektuak zehazten laguntzen digula. Generoak hiru irizpideren arabera sailka ditzakegu (Dolz eta bertze, 2013):

1. Helburu sozialaren arabera.
2. Ikasketa planetan eta testuliburuetan hartzen duten forma diskurtsiboaren arabera.
3. Bideratzen dituzten gaitasun linguistikoen arabera.

Honela, bada, nik nire lanerako argudio testu bat aukeratu nahi izan dudalarik, ikus dezagun Dolz eta bertzeren (2013) lanak eskaintzen duen argudiatzearen eremuko generoen sailkapena:

| KOMUNIKAZIO EREMU SOZIALAK | ASPEKTU TIPOLOGIKOAK-GAITASUN LINGUISTIKO NAGUSIAK | AHOZKO ETA IDATZIZKO GENEROEN ADIBIDEAK |
|--|---|---|
| Gizarte arazo gatazkatsuei buruzko eztabaida | <ul style="list-style-type: none"> • Argudiatzea • Eustea, gezurtatzea eta iritzi eta posizioen negoziaketa | <ul style="list-style-type: none"> • Eztabaida • Iritzi-gutuna • Erreklamazio gutuna • Eztabaida informala • Debatea • Asanblada • Zuzenbide alegatuak (aldekoa eta aurkakoa) • Erreseina • Iritzi artikulua • Editoriala • Saiakera |

Idatzizko iritzi-gutuna izanen da guk diseinatu eta eraikiko dugun sekuentzia didaktikoaren genero zehatza. Hasierako iritzi edo tesia eusteko, gezurtatzeko edo posizioen negoziaketa bideratzeko eta, noski, argudiatzeko ditugun baliabide linguistikoak erabili beharko dira testu-genero honen ekoizpenean. Egoera komunikatiboari begira, gatazkatsua edo polemikoa diren gai sozialen inguruan jarduteko testu generoa da. Ondorengo atalean honetaz arituko gara, hain zuzen ere, hots, argudiatzeari eta honen berezko izaera eta ezaugarri nagusiei buruz.

2.3. ARGUDIAKETA

Argudiatzea testuinguruari erabat lotuta dagoen jarduera da. Campsen (1995) erranetan, ekoizleak honako helburu hau du argudiozko berbaldi bat egiten duenean: hartzailearengan eragina izatea, hau da, konbentzitzea. Cuenca (1995) ere bat dator honetan, honelaxe definitzen baitu:

“La argumentación es un fenómeno discursivo complejo que tiene como objetivo convencer a un receptor o auditorio sobre unas ideas o tesis.” (Cuenca, 1995:23)

Cuencaren (1995) erranetan, argudiatzearen oinarritzko egitura hiru atalek osatzen dute:

1. Sarrera: hementxe egonen da gaiaren aurkezpena (iritzi orokor edo partikularra). Honetaz gain, igorleak hartzailearekin izanen duen kanala irekiko du, hartzaileak igorlearen posizioa zein den jakin dezan.
2. Garapena: tesiaren aldeko argumentuen aurkezpen eta defentsarekin osatuko da, baita aurkako argudioen gezurtatzearekin ere.
3. Ondorio edo konklusioa: errandakoaren sintesia egin eta defendatutako tesia berresteko baliatuko da.

Hiru atal hauek behar bezala osatzeko, iritzi-emaileak bertzelako iritzia dutenen irudia beharrezkoa du, haiei zuzendua egonen baita bere jarduna. Kontuan hartu behar dugu, ahozkoan ez bezala, idatzizko argudiatzean hartzaileak ez daudela bertatik bertarako komunikazio egoeran, eta, beraz, igorlearen lana izanen dela hauen irudikapen bat egitea. Argudiatzea eraginkorra izan dadin, irudikapen hau errealitatearen irudi ahalik eta fidelena izan beharko du. Gainera, Campsen (1995) lanarekin jarraituz, igorleak bere ekoizpenean hartzaile hauek nolabait definitu beharko ditu, bere mintzaldian aipatuak izan direla ohartu daitezten.

Hau lortzeko tresna eraginkorrenetako bat kontra-argudiaketa da. Igorleak *aurkarien* ikuspuntua kontuan hartu nahi badu eta hauei erantzuna eman nahi badie euren argudioak baliogabetuz, bere mintzaldian aurkako iritzi hauek aipatu beharko ditu. Honelaxe definitzen du kontra-argudiaketa Campsek (1995):

“La contra-argumentación, que consiste justamente en formular en el seno del discurso las posibles limitaciones u objeciones a la posición que defiende el locutor-escritor con el fin de neutralizarlas con los propios argumentos, constituye uno de los medios principales para definir la posición que se combate y que se pone en boca de otros enunciadores a quienes se atribuye dichas opiniones.” (Camps, 1995:53).

Bi dira kontra-argudiaketa eragiketa osatzen duten egitura nagusiak:

1. Kontzesioa: defendatzen den tesiaren aurkakoa den ideia onartu ondotik bere indar eta balio argudiatzailea mugatzean datza.
2. Errefutazio edo gezurtatzea: igorlearekin eta bere tesiarekin bat ez datorren argudioari erreferentzia egin eta hau ezeztatzean datza.

Campsek (1995), beraz, bi funtzio nagusi ematen dizkio kontra-argudiaketari: bat, argudiatzearen bidez aipatua izan den hartzailearen irudikapena osatzen lagundu; eta bi, hartzaile honek igorleak defendatzen duen tesiari jar diezazkiokeen eragozpen edo oztopo posibleak egiaztatu.

Agerikoa da argudiaketak bere-bereak dituen ezaugarri batzuk dituela, bertze eremu sozial batekoak diren testu moldetan agertuko ez zaizkigunak. Larringanek (1992a) argudio testuen pedagogiak, funtzionamendu linguistikoari dagokion heinean, argudiaketa-praktika sozialen ezagupena eta azterketa egin behar duela azaltzen digu. Eskolak lan objektibo eta teknikoa eskatzen duen neurrian, argudiatze gaitasuna lantzeko bideak eta ariketak proposatu beharko dituela dio autoreak. Ariketa hauek eskola ariketak baino ez dira izanen, baina argudiatzea benetako eran gauzatzeko baliagarri izanen dira. Horien adibide dira honako kasu hauek, bertzeak bertze (Larringan, 1992a): ikasle batek ideia bat defendatu behar izatea, proiektu bat aurkeztu beharra, bere buruaren defentsan aritu beharko duenean edo ikaskidea bere konbentzimendutik atera behar duenean.

Hizkuntza ekintza hauek argudiatzea badira ere, Calsamiglia & Tusón (2001) lanak argudio testu batean argudio gisa lan egiten duten edo konbentzitzeko funtzio nagusia indartzen duten deskripzio, narrazio eta azalpenak ere egon daitezkeela argitzen digu. Premisen alde egiteko eta hauei balioa emateko bilatzen diren *argumentuak* adibideetan, analogian, autoritate argudioetan, zergatietan edo ondorio deduktiboetan oinarritu daitezke.

Argudiatzearen baliabide linguistiko eta diskurtsiboen artean, berriz, honako hauek dira erabilienak (Calsamiglia & Tusón, 2011): pertsona deixiaren erabilera, antonimia, modalizazio mekanismoen erabilera eta, batez ere, hizkuntza ekoizpen gatazkatsu eta polemikoa gidatzen duten antolatzaile edo lokailuak. Justaposizio soilak indar argudiatzailea eman eta lotura ezartzen badu ere, argudio ekintza landuak erlazio hau esplizituki agertzea eskatzen du.

Kontra-argudiaketari begira, autoreen arabera aurkako argudioei banan-banan kontra egitea izanen litzateke egokiena, eta, ahal bada, *aurkariak* aurreikusi ez duen argudio berri bat gehitzea. Hau egoki egiteko, lokailuak izanen dira gakoa, hauek erakutsiko baitituzte honako alderdi hauek, bertzeak bertze: kausa eta ondorioa, baldintza, erabateko aurkakotasuna ala aurkaritza partziala, zehaztasunak, norberaren

iritziaren sarrera edo kontrako iritziaren aipamena. Argudiatzearen berariazko antolatzaileak hiru multzotan banatzen dira: aurkaritzazkoak, kausalak eta distributibo edo banatzaileak (Calsamiglia & Tusón, 2011).

Azkenik, aipatu, norberaren iritzia adierazteko erabiltzen diren mekanismo baliagarrienak: *ulertzen dut, pentsatzen dut, nire ustez, nire ikuspuntutik...* gisakoak (Calsamiglia & Tusón, 2011). Halaber, polemika ondorengo elementu lexiko hauen bidez indartu daiteke: *gezurra, engainua, argudio, desadostasun, erakustaldi...* gisakoak (Calsamiglia & Tusón, 2011).

2.4. SEKUENTZIA DIDAKTIKOA

Larringan eta Idiazabalen (2012) hitzei jarraituz, hizkuntz(ar)en didaktika egiterako orduan bai irakasleak eta bai hizkuntzaren zientzialariak dira beharrezkoak, bata bertzearen beharrea baitaude. Ezin dugu ikuspegi didaktikoa ahantzi, baina bai batak eta bai bertzeak dute hitza. Hala ere, lehenbiziko hitza irakaslearena da, berari baitagokio ekintza pedagogiko egokiak zein diren erratea. Honen ondotik etorriko da hizkuntza zientzialariaren eginbeharra, hots, irakasleak azalduko ekintza pedagogiko hauek teorizatu eta deskribatzea.

SDa, hain zuzen ere, eredu honetan kokatzen da, zer, zein helbururekin, nola, eta berte hainbat faktore kontuan hartzen dituen jarduera baita. Behin-behineko definizio bat ematen digute Larringan eta Idiazabalek (2012):

“SDa jarduera multzo bat da, segidan antolatua, egitura eta artikulatua, beti ere helburu pedagogiko jakin batzuk lortze aldera bideratutako lanabesa; hasiera eta bukaera zehatzak izan ohi ditu, eta bi mutur horien berri izango dute parte-hartzaileek, hots, hala ikasleak, nola irakasleak.” (Larringan eta Idiazabal, 2012:17).

Oinarrizko irakats-objektua testu-generoa izanen da. Goiko ataletan ikusi dugu, Dolz eta bertzeren (2013) lanaren laguntzaz, testu-generoa eskolarako baliabide didaktiko gisa erabiltzeak ze baliabide eta oinarri eskaintzen duen irakaskuntzarako.

Berriz, funtsezko hiru baldintza edo irizpide bete beharra dago metodologikoki irakaskuntza egokia egiten ari garela bermatzeko (Larringan eta Idiazabal, 2012):

1. Legitimitatea edo zilegitasuna: testu-genero hori aukeratzeko arrazoiak izan badira eta, gainera, testuak izaera generikoa izanen du.
2. Pertinentzia edo egokitasuna: SDan landuko diren jarduerak testu-generoaren araberakoak izanen dira. Honetarako, irakasleak testu-genero jakin baten ekoizpena burutzeko beharrezkoak diren hizkuntza formak zein diren jakin beharko du.
3. Solidaritate edo elkartasuna: SDaren atalak osotasun bat eratuko dute, hots, batak bertzearekiko solidarioak izan beharko dute.

Honetaz gain, SDaren honako ezaugarri hauek ekarri nahi nituzke lerro hauetara, orokorki azalduak badira ere (Larringan eta Idiazabal, 2012):

1. Talde osoaren proiektua da, bai ikasle eta bai irakaslearena ere; egitasmo konpartitua da.
2. Irakasleak testu-genero jakin bat egiteko eskatuko die ikasleei.
3. Lau hau errealak nahiz fikziozkoak izan daiteke.
4. Proiektua ataletan banatuta edo osotasunean egiteko aukera dago.
5. Ikaslearen lehen ekoizpena da jardueraren erdigune eta oinarri, honen inguruan eraikiko baita proiektua bera.
6. Hasierako egoera oinarrizkoa da, motibazio pizgarri zein jardueretarako gidari izanen baita.

SDak hiru zutabe ditu (Larringan eta Idiazabal, 2012): proiektu edo egitasmoa, hizkuntza ekintza eta helburuak. Lehenik eta behin, SDa ikasgelan onartutako proiektu bat dela argi izan behar dugu, komunikazio ekintza jakina xede duen proiektua, hain zuzen ere. Lehenbiziko pausua testu-genero bati dagokion ekoizpen jakin bat egiteko erabakia hartzea izanen da, ondotik, hau berau hartuko baita ikas-irakaskuntza objektutzat. Bigarrenik, SDa hizkuntza ekintzan oinarritzen den marko didaktiko batean kokatu behar da. Aniztasun handia dago testu zein ekintzen artean; horregatik, SDan ekintza zehatzekin ari behar da lanean, eta honetarako honen izaera eta nolakotasuna argi eduki behar dugu. Hirugarrenik, helburua argi eduki behar da SDan aitzinera joan

ahal izateko. Honetarako, modu esplizituan erran behar da zein den proiektuaren jomuga eta ezartzen diren helburuak gutxi batzuk izanen dira. Xede hauek ikasleen hasierako testuen arabera zehaztu daitezke.

SDaren egituraketa berari dagokionez, lau etapa nagusitan banatzen da, bakoitzak bere osagai eta baliabideak dituelarik (Larringan eta Idiazabal, 2012):

| EGOERAK | AZALPENA |
|--|--|
| 1. EGOERAZ JABETZEKO ETAPA (EJ) | Egitasmoa zein den zehaztea eta hau erdigunean jartzean datza. Ikasleen interesekoa izatea lagungarri izanen da hauen motibazioa pizteko eta benetan eraginkorra izateko. Irakasleak “ hitzarmen didaktikoa ” eginen du ikasleekin, denen parte hartze eta inplikazioa bultzatzeko. |
| 2. HASIERAKO EKOIZPEN ETAPA (HE) | Aurre-testuaren ekoizpena eta honen azterketa du ardatz. Izan ere, aurre-testu hau informazio iturri bilakatuko da irakaslearentzat, honen arabera finkatuko baititu ondotik etorriko diren modulu irizpide eta lehentasunak . Erran gabe doa, irakasleak ikasleen ahulguneak zein diren ikusteaz gain, hauen gaitasunak baloratzeko ere baliatuko du aurre-testua. Oro har, egoeraren irudi ahalik eta osoena irudikatzeke tresna izanen da |
| 3. TAILERREN ETA MODULUEN ETAPA (TT/MM) | Tailerren eta modulu etapa. Tailerren helburua ikasleengan ikusi diren ahuleziak hobetzea da. Aurre-testuen arabera izanen dira modulu hauek eta hizkuntzaren lau mailak hartuko ditu kontuan: ekoizpen egoera, edukiak, testuaren egitura eta testuaren kohesio eta konexioa ziurtatzeko behar diren hizkuntz unitateen maila. Tailer bakoitzak bere autonomia badu ere, ardatz baten inguruan eraikiak izanen dira denak. Tailerrez gain kontrol-zerrenda bat ere eginen dute moduluetan landu dituzten eduki garrantzitsuenak bertan aipatuz. Zerrenda hau azken ekoizpenerako kontuan hartzeko eskatuko zaie. |
| 4. BUKAERAKO EKOIZPENA ERREBISIOA, ETA EBALUAZIO ETAPA (BEE) | Ikasleek azken ekoizpen bat eginen dute, baina oraingoan SDan zehar landu eta ikusitako hizkuntz lanabesak eskuragarri izanen ditu bere hobekuntza erakusteko. Honetarako, kontrol-zerrenda izanen dute lagun, baina ebaluazio irizpideak argitze aldera, modulu bakoitzaren bukaeran ere ager daiteke. Irakaslearentzako ebaluazio bide ere izanen da, honekin ikusiko baitu egitasmoaren helburuak nola eta zenbateraino bete diren. Lorpen eta hutsuneen aztergune izanen da. |

Zehaztasunez deskribatu den Genebako eskolako SDaren metodologia hau da lanerako erabiliko dena. Hizkuntzaren irakaskuntzarako tresna edo oinarri nagusitzat testu-generoa erabili behar delarik, SDak errealitatera ahalik eta gehien hurbiltzen den

egoera komunikatibo bat eraikitzen eta hizkuntza bere horretan erabiltzea bilatzen du. Metodologia honen arabera izanen dugu ondoren eraiki den SD eredugarria, beraz.

3. ATAL PRAKTIKOA

Atal honen oinarri eta ardatz bildutako corpusa izanen da. Lehenik eta behin, corpuseko testuen egileak eta hauen ingurua pixka bat ezagutze aldera, ikasleen profilaria buruz hitz labur batzuk aipatuko dira. Ondotik, kontsigna zein izan den erakutsi, berau aztertu eta ondo-testuen ekoizpenerako aldaketa bat proposatuko da; izan ere, ikasleen ekoizpenen bidez, gure kontsignak bi interpretazio desegoki bideratu dituela ikusi baitugu. Bigarrenik, testuen analisisira joko da, erabili dugun galbaheari jarraituz, testuen batz-bertzeko gainbegiratutik hasi, testuaren atal nagusien azterketara igaro eta, azkenik, argudiozko diskurtsoaren eragiketak aztertuz. Hirugarrenik eta azkenik, testu hauen gabezien arabera diseinatutako SDA aurkeztuko da.

3.1. IKASLEEN PROFILA ETA KONTSIGNAREN AZTERKETA

Ikasleen profilaria begira, Berako (Bortziriak, Nafarroa) IES Toki – Ona BHI-ko batxilergoko lehenbiziko mailako ikasleak dira parte hartu dutenak. Denak D eredukoak dira. Hamasei - hamazazpi urteko gazteek eginiko 60 aurre-testu lortu ziren, baina azterketa corpusa osatzeko 10 bakarrik baliatu dira, ausaz aukeratuak izan direnak.

Bera Nafarroa iparraldean kokatutako udalerria da. 3.700 biztanle inguru ditu eta Lesaka, Etxalar, Igantzi eta Arantza herriekin batera Bortziriak deituriko eskualdea osatzen du. Herri euskalduna dela erran genezake, Soziolinguistika Klusterra eta Bortzietako Euskara Mankomunitateak 2013an eginiko euskararen kale erabileraren neurketaren arabera, Beran euskararen erabilera %43,9-koa izan baitzen 2013. urtean (ez dugu datu berriagorik). Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) partaide ere bada.

Aurre-testuak eskuratzeko, ikasleei egokitutako kontsigna bat prestatu genuen. Idatziz eman zitzairen, bakoitzari berea. Hona hemen:

Beran, 2013ko urriaren 16an

Ikasle agurgarriak:

Ikusi dugunez inguruko ikastetxe batzuetan uniformeak erabiltzen hasi dira. Hau ikusita, Toki-Onako Guraso Elkarteak hemen ere uniformeak erabiltzen hasteko eskatu du. Gaiaren inguruan eztabaidatu ondoren, ondorengo arrazoi hauengatik uniformearen erabilera positiboa izan behar litzatekeela pentsatzen dugu:

- 1.- Krisia dela eta ekonomikoki errentagarriagoa ikusten dugu.
- 2.- Kanpoko itxura dela eta sortzen diren irain eta bazterkeriak gutxituko lirateke.
- 3.- Berdintasuna bultzatuko genuke.
- 4.- Ikasleak ikastetxearen parte dela ikusiko dugu, lotura estuagoa sentituko du.

Hau guztia kontuan hartuta, eskolako Zuzendaritza Taldeak zuen iritzia jakin nahiko luke.

Aldez aurretik eskerrak emanez, zuen erantzunaren zain gelditzen gara.

Adeitasunez,

Zuzendaritza Taldea

Gure corpora aztertu ondoren, kontsigna hobetzea dagoela ondorioztatu dugu, helburua zein zen argi gelditzen ez zela ikusi baita. Zuzendaritza taldeari iritzi-gutun baten bidez emaniko erantzunak bildu nahi ziren, baina 10 testuetatik 4 testu baino ez dira bilatzen genuen gutun itxuran gauzatu. Aurre-testuak sortzeko kontsignan emandako ohar eta argibideak ez dira guk uste bezain argiak izan, ezta egoera komunikatiboari behar bezala egokituak ere. Ikasleen testuek, komunikazio helburuari dagokionez, kontsigna ez zela behar bezain argia ulertzen lagundu digute. Golderren (1996) arabera, 16-17 urte bitarte garatzen dira, oro har, argudiozko testua bere osotasunean atxikitze behar den ikuspegi orokorra eta argudio eragiketa garatuenak (negoiazioa, errate beterako). Autorearen arabera, horretarako beharrezkoa da, bertzeak bertze, argudiatzeko egoera komunikatibo ahalik eta zentzuzkoenak sortzea.

Honela, bada, kontsignak oinarritzeko tresna dira idazketa prozesua behar bezala orientatzeko, kontsigna egoki batek idatzizko ekoizpen bat gidatu eta zehaztu behar

baitu egoera komunikatibo jakin batean eta testu-genero jakin baten barruan (Camelo, 2010). Dena den, zenbait kasutan, enuntziatu hauek anbiguoak edo ongi zehaztu gabeak izan daitezke, ikasleengan interpretazio bat baino gehiago sortuz. Honen ondorioz, ikasleen ekoizpenek ez dute irakasleak espero zuenarekin bat egiten. Hauxe da, hain zuzen ere, guri gertatu zaiguna. Kontsignak, beraz, zehatza eta argia izan behar du eskatutakoa modu koherente batean ekoitz dadin.

SDaren ondo-testuak biltzeko gure kontsigna moldatzea aukera ona litzateke, beraz. Ikasleek iritzi gutunaren bila gabiltzala hobeto uler dezaten, zehaztaperen txiki bat gehituko diogu. Beltzez markatuko dugu egindako aldaketa:

Beran, 2013ko urriaren 16an

Ikasle agurgarriak:

Ikusi dugunez inguruko ikastetxe batzuetan uniforme erabiltzen hasi dira. Hau ikusita, Toki - Onako Guraso Elkarteak hemen ere uniforme erabiltzen hastea eskatu du. Gaiaren inguruan eztabaidatu ondotik, ondorengo arrazoi hauengatik uniformearen erabilera positiboa izanen litzatekeela pentsatzen dugu:

- 1.- Krisia dela eta ekonomikoki errentagarriagoa ikusten dugu.
- 2.- Kanpoko itxura dela eta sortzen diren irain eta bazterkeriak gutxituko lirateke.
- 3.- Berdintasuna bultzatuko genuke.
- 4.- Ikasleak ikastetxearen parte dela ikusiko dugu, lotura estuagoa sentituko du.

Hau guztia kontuan hartuta, eskolako Zuzendaritza Taldeak **gutun bat jaso nahi luke gai honen inguruan zuek duzuen iritzia zein den jakiteko.**

Aldez aurretik eskerrak emanez, zuen erantzunaren zain gelditzen gara.

Adeitasunez,

Zuzendaritza Taldea

3.2. CORPUSAREN ANALISIA

Behin corpusa jasota, testuen azterketa eta analisisia egingen da. Hiru atal nagusik osatuko dute: testuen bataz-bertzeko gainbegiratua, testuen atal nagusien azterketa eta argudiozko diskurtsoaren eragiketak.

Testuen bataz-bertzeko gainbegiratuan jaso ditugun datuek osatuko duten lehenbiziko atala, beraz. Honetarako, idazketa egoera honek eskatu duen egitura formalaren osaera, argudio-elementuen trataera nola egin duten, testuen antolaketa nolakoa den eta lexikoa eta argudiatzearen meta-diskurtsoa nola egin duten aztertu dugu.

Bigarren atala, berriz, testuen atal nagusien azterketa izanen da, hots, testuen sarrera, testuen konklusioa eta argudiatzearen garapenari buruzkoa.

Hirugarren atala, eta azkena, argudiozko diskurtsoaren eragiketen inguruko azterketak osatuko du. Honako azpiatal hauek osatu dute hirugarren zati hau: iritzia eman eta hari eustea, birformulatze mekanismoak, ikuspuntu baten kontrajartzea, baliogabetzea edo gezurtatzea eta iritzi edo ikuspuntuen arteko negoziaketa.

1.2.1. Testuaren bataz-bertzeko gainbegiratuan:

1. Idazketa egoerak eskatzen duen egitura formala.

Hau da lehenbiziko begiratuan ondoriozta dezakegun ezaugarri nabarmenenetako bat: 10 testuetatik 8 ordenagailuz idatziak daude eta 2 eskuz. Bakar batek ere ez du orrialde bat baino gehiago okupatzen eta gehienak 25-30 lerro bitarte dituzte. 1. testua da zenbaki horietatik jaisten den bakarra, motzena: 14 lerro. 6. testua, berriz, luzeena: 32 lerro. Oro har, testuak luzeraz erregularrak direla erran dezakegu.

Bigarren begiratuarekin hauteman dezakeguna, berriz, honako hau da: 10 testuetatik 4 dira iritzi-gutunak direnak; 1, 6, 8, eta 9. testuak, hain zuzen ere. Gainontzekoak, iritzi-artikuluak dira. Aipatu dugun bezala, hau gure kontsignak sorrarazitakoa izan dela ondorioztatu dugu, egoera komunikatiboa ez baikenuen behar bezain zehatz eta argi definitu eta, horren harira, interpretazio desberdinak izan baitira.

Eskuz idatziak daudenak 4. eta 5. testuak dira. Txantilo moduko bat darabilte eta argi eta idazkera txukunarekin idatziak daude. Gainerakoek, hots, ordenagailuz idatzi dutenek, ohiko letra motak erabili dituzte: *Times new roman* (1,3 eta 7. testuek), *Calibri* (8. testua) edo *Comic Sans MS* (2. 6, 9 eta 10. testuek). Testu guztiak ezkerretik justifikatuta daude baina ez eskuinetik. Sangriaren erabilerari dagokionez, hau da, paragrafoaren lehenbiziko lerroa apur bat eskuineraxeago hastea, erdiak baino gehiagok erabiltzen dutela erran dezakegu: 1, 2, 3, 4, 6 eta 8. testuek darabilte.

Testu guztiak paragrafoetan banatuak daude, bai iritzi-gutunak eta bai iritzi-artikuluak. Gainera, 5. testuak ez ezik, guztiek lerro bat baino gehiago uzten dute paragrafo batetik bertzerako saltoan. Paragrafo kopuruari begiratzeko orduan eredu edo patroia nagusi bat antzeman daiteke: testuak 6 paragrafo ditu eta hauetatik 3 edo 4 nagusienak edo pisu gehien dutenak dira, hots, testuaren gorputza edo garapena osatzen dutenak. 1, 2, 3, 8, 9 eta 10. testuek, hain zuzen ere, patroia hau betetzen dute. 5. eta 7. testuak laburxeagoak dira: 5 paragrafo dituzte eta hauetatik 3 dira testuaren gorputza eraikitzen dutenak. Paragrafo nagusi hauek 4 – 8 lerro bitartean dituzte; gainontzekoak, aldiz, bizpahiru.

Erran bezala, dagokion espazioa hutsean edo zurian uzteaz gain, 6 testuk sangriaren erabileraren bidez adierazten dute paragrafo berriaren hasiera. Baina, 3 eta 6. testuek elementu grafiko eta paratestualak ere badarabiltzate banaketa hau seinalatzeko: 3. testuak puntuak erabiltzen ditu paragrafo bakoitzaren hasieran eta 6.ak gidoia. Aipatu beharrekoa da, dena den, elementu grafiko hauek gorputza edo garapena osatzen duten paragrafoetan bakarrik agertzen direla eta, beraz, argudioen zerrendatze eta banaketarako erabilitako mekanismo gisa identifika ditzakegula, hau da, konexio baliabide gisa.

Iritzi-artikulu gisa gauzatu diren testuek, dagokion moduan, izenburua dute. 10. testuak, gainera, testu-generoaren berri ematen digu bere izenburuarekin: *iritzi testua*. Gainontzekoak, aldiz, gaiaren berri ematen digute: “*uniformea bai edo ez?*” (1, 4 eta 7) “*uniformea ikastetxean*” (2) eta “*Toki Ona Institutuan uniformea*” (3). Izenburua testu-generoaren berri emateko erabiltzea ez da egokia kasu honetarako; gaia ekartzeko erabili dutenak, berriz, egoki egin dute.

Data eta lekua testu bakarrean agertzen zaigu, 8.enean, hain zuzen ere. Testuaren goiko eskuineko aldean kokatua dago: “*Lesakan, 2013ko urriaren 23an*” (8). Aipatu

beharrekoa da hau gutunetan bakarrik esperoko genukeen datua dela. Testu hau, hain justu ere, genero honi dagokio.

Iritzi-gutunetan esperoko genituzkeen bertze elementuetako bi hasierako eta bukaerako agur formalak dira. Corpusean, erran bezala, 4 iritzi-gutun ditugu. Hasierako agur formala lau testuek dakarte: “Zuzendaritzako buruari...” (1), “Zuzendaritza talde agurgarria...” (6), “Toki-Ona Institutuko Zuzendaritza taldea...” (8) eta “Zuzendaritza taldeari...” (9). Egoki eginak daudela erran daiteke. Bukaerako agur formala, ordea, bi testutan bakarrik aurki dezakegu: “agur bero bat...” (1) eta “besterik gabe...” (9). Agur formala iritzi-gutunen osagaietako bat denez, hau ez ekartzea gabezi gisa identifika daiteke.

Egilearen sinadurari dagokionez, berriz, bortz testutan azaltzen zaigu: 2, 3, 5, 9 eta 10. testuetan. Aipaturiko azkeneko lau testuetan, idatziaren amaieran ageri da egilearen izena, eta, gainera, 3, 9 eta 10. testuetan, izen abizenaz gainera maila eta taldea aipatzen dute norberaren izenaren ondoan: “IZENA ABIZENA 1.Batx X” (3), “IZENA ABIZENA, 1.Batx-X taldeko ikaslea” (9) eta “IZENA ABIZENA, 1Batx X” (10). Gainerako testuetan izen-abizenaz soilik sinatzen dute, nahiz testuaren hasieran (2. testua) nahiz amaieran.

2. Argudio-egoerako elementuen (parametroen) trataera nolakoa den:

Gure testuotako eztabaidagaia honela defini dezakegu: IES Toki Ona BHI-n ikasleek uniformeak erabili ala ez. Orokorrean, gaia zein den 10 testuetatik 8ik aipatzen dute. Hala ere, gaia aipatzeko modu eta eredu ezberdinak baliatzen dituzte.

Alde batetik, gaia izenburuaren bidez ematen digutenak daude: “uniformeak bai edo ez?” (1,4 eta 7), “uniformeak ikastetxean” (2) eta “Toki Ona institutuan uniformeak” (3). Guztira bortz testu erabiltzen dute baliabide hau.

Aipatzekoa da gaia izenburura ekarri duten gehienek ez dutela sarreran gaiaren inguruko markorik eraiki. 2 eta 7. testuak dira bai izenburuan eta bai sarreran, bi ataletan, gaia aipatu duten bakarrak.

Bertze alde batetik, tematizazioa testuaren sarreran egiten dutenak daude; honelako 7 testu ditugu guztira. Hau egiteko baliabide ezberdinak erabili dituzte:

Badago gaiari antolatzaileak erabiliz sarrera eman dionik: “*normalean, hirietan ikusten ditugu gu bezalako ikasleak uniformearekin jantzita ikastetxera joaten. Baina badirudi, inguru honetan ere hasi direla hainbat ikastetxetan uniforme erabiltzen...*” (2), “*denok dakigun bezala ikastetxe batzuetan, ikasleak derrigortuta daude ikastetxera uniforme eramatera...*” (6).

Bertze batzuek eztabaida iturriaren aipamena egiten dute: “*ikastetxean uniforme erabiltzen hasteko erabakia eskuartearen dutenez, gure iritzia bila dabilta eta eskutitz honetan, gai honen inguruan dudan pentsamendua azalduko dut...*” (5), “*zuzendaritza taldeetik jakinarazi digute, gure ikastetxean beste askotan bezala uniforme erabiltzea proposatu duela Guraso Elkarteak...*”(7), “*guraso elkartearen buruturiko eskera aintzat hartuz, nahiz zuek proposatu zenituzten argudioak behatuz, gure ikastetxean uniforme eramatearen arrazoiekin...*” (8).

Azkenik, baliabide metadiskurtsiboen bidez gaiaren aurkezpena egin duten bi testu dauzkagu: “*hurrengo lerroetan toki ona institutuan uniformearen erabilerari buruzko daukadan iritzia emango dut*” (9), “*testu honetan, Toki-Ona ikastetxeko Guraso elkartearen jarritako eskaintzari buruz argudiatuko dut. Eskaintza hau, bertze ikastetxe batzuetan bezala, ikasleek uniforme erabiltzen hastea datza*” (10). Azken honetan, sarrerako meta-diskurtsuaren erabileraz gain, ikasleek jasotako gutunari erreferentzia ere egiten dio.

Ikasleek eskatu dizkiegun testuetan ikasle roletik aritu eta enuntziatu behar dute, eskolako gai baten eta eskolan bertan bideratu nahi den komunikazio egoera planteatu baita kontsignan. Bi testu ditugu rol hau esplizituki adierazi eta aurkezten dizkigutenak: “*Ni ikastetxe honetako 4.mailan ikasten dudan mutil bat naiz...*” (1) eta “*Batxilergoko 1.X taldeko ikaslea nahiz...*” (9). Testuaren sarreran eginiko formulazioak dira hauek, baina ondorengo kasu hauetan, sarreran bere buruaren aurkezpenik egin ez badute ere, honela sinatu dutela ikus dezakegu: “*IZENA ABIZENA 1.Batx X*” (3), “*IZENA, 1.Batx-X taldeko ikaslea*” (9) eta “*IZENA ABIZENA, 1Batx X*”(10). Erabilitako laburdurari dagokionez, hots, batxilergoa adierazteko “*batx*” formulatzea, gure testu-generoak eta egoera komunikatiboak eskatzen duen egoera formalerako informalegiak direla erran daiteke.

Gainerako testuetan ikasleak aurkeztu ez badira ere, lehenbiziko pertsona singularra erabiltzen dute beren buruari erreferentzia egiteko. Izenordain anaforiko eta

posesiboak dira hau egiteko gehien erabiltzen dituzten baliabideak, baita aditz laguntzailearen komunztadurak ere: “**nire** ustez uniformaren erabilerak... eskubide osoa duela pentsatzen **dut**...” (1), “**nik**, pertsonalki, nahiago **dut**...” (2), “hasieran esan **dudan** bezala...”(4), “**ulergarria** iruditzen **zait**...” (6), “**ni** ideia honen kontra **nago** erabat... **nik ditudan** argudioen arabera pentsatzen **dut**... **ulergarria** iruditzen **zait**...” (7), “ez **nago** guztiz ados... ez **nator** bat... **nire** iritziz... biziki erregutzen **dizuet**” (8), “beraz, **nik** ez **dut** oso ekonomikoa ikusten... uniformearen erabileraren kontra **nagoela** erabat” (9) eta “Ondoren, **nire** ikuspuntutik...ez **dut** uste... guztiz ados **nago**... pentsatzen **dut**” (10). Adibideetan enuntziazio mailari eusten diotela ikus dezakegu. Dena den, ez dago “ikasle gisa”, “ikasle naizen aldetik” eta gisa honetako formulatzerik, hots, ikasleak bere roletik bai, baina ez du rol hau azpimarratu eta iritzia-emailea hor kokatzen. Testuaren kohesioan eragina izanen lukete honelako formulazioek.

Dena den, igorlearen ahots enuntziatzailea erabateko inplikaziotik (lehenengo persona singularraren deiktiko pertsonalen erabilera) pixkat bat urrundu eta pluralaz baliatzen den kasuak ere baditugu; zenbait kasutan, gainera, singularra eta pluralaren kasuak konbinatzen dira. Adibide gehiago badira ere, espazio kontuak direla eta batzuk bakarrik ekarriko dira lerrootara: “*eskolan bertan bakarrik erabiliko **baitgenuke** (...) honela, arropa gutxiago beharrean gehiago beharko **geniztuzke**” (1), “*libreak **gara** gure itxura zein izango den aukeratzeko... (...) nahiz eta irain batzuk alde batera utzi denak berdin **goazelako**...*” (4), “*arratsaldean beste gauza batzuk izaten **ditugu** egiteko... (...) uste **dut** inork ez duela erabaki behar zer modutan jantzi behar **dugun**...*” (5), “*nahiz eta **denok** berdin jantzita ibili...(...) baina **ikasleok** etxera ailegatu...*” (7), “*gainera, uniformeekin dirua aurreztuko **bagenu** ere bestelako arropak erosiko **genituzte**... (...) gastu extra bat bezala ikusten **dut**...*” (9).*

Ez dugu ageriko deiktikorik edo testuinguruko inolako markarik gabeko testurik, idatzizko egoera batean baikaude eta honen arabera idazten baitute ikasleek, oro har, modu egokian. 3, 5, 6, 7 eta 8. testuetan, ordea, hirugarren pertsonako adizkiak eta inpertsonalak erabili dituzte. Honek, igorlearen inplikaziorik eza suposatzen du. Testuetan adibide gehiago ikusten badira ere, 8. testuko adibide dugu hemen: “*ikasleen **familiek** jantziarengatik... (...) ikasle iraindu **bati**... (...) eman **diezaiokeelako**... (...) institutuko **ikasleen** artean... (...) berdintasun puntu bat nabaritutako **litzateke**... (...) **ikasleak** ez du zertan...*” (8).

Igorlearen ardura enuntziatiboaren erakusle diren lekuzko eta denborazko deiktikoen zenbait arrasto ere badaude gure testuetan. Gisa honetan, enuntziatzaileak testua gauzatu den espazioarekin duen distantzia-harremana agerian uzten du. Honako hauek dira lekuzkoen adibide batzuk: “*ikastetxe honetara...*”(1), “*inguru honetan...*” (2), “*gure zentroan...*” (4). Honako hauen gisakoak, berriz, denborazkoak: “*gaur egun...*” (2) eta “*gaur egungo familiak...*” (9).

Hartzaileari dagokionez, lau testuk sarrerako agur formalaren bidez testuaren hartzailea zein den esplizituki erraten digute: “*zuzendaritzako buruari...*” (1), “*Zuzendaritza talde agurgarria...*” (6), “*Toki Ona Institutuko Zuzendaritza taldea...*” (8) eta “*Zuzendaritza taldeari...*”(9). Lehenbiziko testuari begiraturaz, agur formala singularrean egitean badu ere, testuan zehar erreferentziak egiterako orduan plurala erabili duela ikus dezakegu: “*zuen gutuna erantzuna...*” (1). Gainerako guztietan, bai hasierako agurrean baita izenordain anaforiko zein posesiboen bidez eginiko erreferentzietan ere, pluralean agertzen zaigu; hona adibide bat: “*Toki-Ona institutuko zuzendaritza Taldea... (...) zuek proposatu zenituzten argudioak behatuz... (...) biziki erregutzen dizuet, ez itzazue uniformeak arautu*” (8).

Hartzailea esplizituki adierazten ez duten testuei erreparaturaz, hiru eginbide aurkitu ditugu hartzailea identifikatzeko:

1. Eztabaida soziala: gaia orokorki aurkezten digu testuak, ikastetxeetan uniformea erabiltzea eztabaida sozial bat izanen balitz bezala aurkeztuz. Orokorpen honekin egileak abstrakziorako gaitasuna duela erakusten digu, baina gure testu generoa ez dirudi horretarako egokiena erabaki konkretu bati heldu behar zaiolako eta hartzailea errekonozitua delako. 2. testua dugu honen adibide: “*normalean, hirietan ikusten ditugu gu bezalako ikasleak uniformearekin jantzita ikastetxera joaten. Baina badirudi, inguru honetan ere hasi direla hainbat ikastetxetan uniformea erabiltzen. Jende askok uniformea janztea ongi edo beharrezkoa ikusten du beste batzuk ordea, ez dute beharrezkoa ikusten ikasle guztiak berdin jantzitan joatea eskola...*” (2). Beraz, hartzailearen identifikazio enuntziatiboa lausoegia da.
2. Estilo zuzena: bigarren pertsonaren bidez zuzentzen dira hartzailearengana ahozko komunikazio ekintza batean bezala jokaturaz. Hona adibideak:

“hurrengo lerroetan gure zentroan ezarri nahi **duzuen** arau berriaren buruz...” (2), “Guraso Elkarteak buruturiko eskaera aintzat hartuz, nahiz **zuek** proposatuta **zenituzten** argudioak behatuz... (...) partekatuko dut **zuekin**... (...) biziko erregutzen **dizuet**, ez **itzazue** uniformeak...” (8), “*espero dut **zuen** iritzia berdina izatea...*” (9). Honek ere, idatzizko egoera baten aitzinean egonik, ez dirudi gure testuetarako eredu egokiena denik.

3. Hirugarren pertsonaren erabilera: hartzaileari hirugarren pertsona pluralaren bidez egiten diote erreferentzia. Hona hemen: “*ikastetxean uniformeak erabiltzen hasteko erabakia eskuartean **dutenez**, gure iritziaren bila **dabiltza**...*” (5), “*zuzendaritza taldetik jakinarazi **digute**... (...) uniformeak jartzea nahi **dotenek**... (...) bultzatzen duela **diote**...*” (7). Kasu honetan, hartzaileari modu honetan zuzenduz, alegia, ez da garbi ageri rolen esleipena.

Ohar bat gehitu nahi nioke hartzailearen analisi enuntziatiboari: mezuaren hartzailea identifikatzeko erabilitako mekanismoarekin koherentea izan behar da, hots, bigarren pertsonaren bidez izendatzen hasiz gero, aditz forma berdinarekin jarraitu behar da hurrengoetan ere. Hauxe da, hain zuzen ere, bortzgarren testuan betetzen ez dena. Ikusi dugun bezala, hirugarren pertsona pluralaren bidez hasten da hartzailea izendatzen, baina aitzinera joan ahala, hirugarren pertsona singularra agertzen dela ikus dezakegu: “*uniformeak erabiltzen hasteko erabakia eskuartean **dutenez**, gure iritziaren bila **dabiltza**... (...) ekonomikoki errentagarriagoa izango litzatekeela esaten **du**...*” (5). Komuntadura sintaktikoa ongi egiten duen arren, aditz-kohesioak ez du erreferentzi kidesuna jarraitzen testu mailan.

3. Testuan agertzen den antolaketa edo plana:

Lehenbiziko gainbegiratuan testuek eredu berdin bati jarraitzen diotela erran dezakegu: Sarrera, garapena eta ondorio bat dago eta paragrafo ezberdinetan banatuak daude. 5. testua da sarrera eta garapenaren atalak ongi bereizten ez dituen bakarra: “*zuzendaritza taldeak idatzitako argudioekin ez nago erabat ados. Lehenengo argudioan, esate baterako, ekonomikoki...*” (5). Honekin, eskolan jada argudiatzearekin

lotutako testu-generoak landu dituztela pentsa daiteke, ikasle denek planifikazio antzekoa erabiltzeko joera erakutsi baitute.

Analisi kuantitatibo zehatzagoa goragoko 1.2.1. atalean egin dugunez, zenbaki garrantzitsuenak ekarriko ditugu lerrootara: testu gehienek 4 edo 5 paragrafoetan banaturiko 25 – 30 lerro bitartean dituzte. Paragrafoak grafikoki banatuak eta zenbait kasutan adieraziak ere badira, 3. eta 6. testuak, kasu. Testu laburrena alde batera utzita, hots, 1 testua, paragrafo bakoitzak 4 – 8 lerro bitarte ditu. Izenburuari begiratuz, 10 testuetatik 6ik dakarte.

Norberaren iritzia non eta nola eman duten aztertu dugu. Sarreran norberaren iritzi edo tesiaren aipamen garbirik gabeko testu bakarra dugu: 10. testua. Gainerako testu guztietan igorleak bere tesia islatzen du, baina hauetatik 3 testuk ondorioan bakarrik aipatzen dute. Beraz, sarreran iritzia aipatzen duten 6 testu dauzkagu. Gairatzea edo markoa eraikitzeari begiratuz, 10 testuetatik 7ik egiten dutela aztertu dugu.

Testuaren gorputzean beraien iritziaren justifikazioa dator. Kontsignan institutuan uniformea jartzearen aldeko lau argudio aipatzen ziren. Ikasleen testuetan testu bakarra dugu bi argudiorekin (4. testua), 4 testu hirurekin (1, 2, 5 eta 6. testuak), 4 testu lau argudiorekin (3, 7, 9 eta 10. testuak) eta testu bakarra bortzekin (8. testua). Nabarmenezkoa da, 4 argudioetaraino aipatzen duten ikasleek kontsignako argudioak hartzen dituztela, hots, kontrako iritzia defendatzeko bada ere, kontsignan emandako argudioak erabiltzen dituztela birformulatze mekanismoen bidez hauei erreferentzia eginez eta beraien lerrootara ekarriz. Argudio propio eta berri bat gehitu duen testu bakarra dugu, beraz. Kontsignako argudioei erreferentzia egiteko kontra-argudiaketa erabiltzen dute. Bai errefutazio baita kontzesio baliabideak ere erabiltzen dituzte honetarako, nahiko proportzio berean, gainera. Argudiozko diskurtsoaren eragiketa elaboratuak agertzen dira, beraz, ikasleen testuetan, adin honekiko espero daitekeen moduan (Golder, 1996).

Testu guztietan azkeneko paragrafoa ondorioari dagokiona da. Hala ere, testu bat daukagu atal hau ekartzen ez duena: 7.na, hain zuzen ere. Gainerako guztiek dakarte ondorioa edo konklusioa.

Gure kontsignaren ondotik esperoko genukeen eta gutxi samar aurki dezakegun ezaugarri bat nabarmendu nahi genuke: eskaera bidezko formulatzea. 8 eta 9. testuetan bakarrik ikusi dugu: “*beraz, biziki erregutzen dizuet, ez itzazue uniformeak arautu ikastetxean*” (8) eta “*garbi geratzen da uniformearen erabileraren kontra nagoela erabat eta espero dut zuen iritzia berdina izatea testu hau irakurri ondoren*” (9). Eskari hau ez ekartzea gabezi gisa identifika daiteke.

Testuaren sarreraren analisisian (3.2.2. atalean), sakonkiago aztertuko dugu aipatu atal hauek eta hartzen dituzten forma linguistikoak.

Laburbilduz, oro har, testuek antolaketa bati jarraitzen diotela eta bakoitzak bere testu-generoaren egitura jarraitzen duela erran dezakegu. Erran bezala, argudiatze testuen osagai eta antolaketa lehenagotik landua dutela dirudi, denek antzeko gaitasunak eta gabeziak erakusten baitituzte. Testuen ataltzea egokia dela erran baitaiteke, gabeziak gabezi. Ikuspegi kuantitatibotik begiratuta ere, testuak nahiko aberatsak direla erran daiteke. Dena den, osagai hauek egon badauden arren, zenbait kasutan osatu gabeak dirudite: bukaerako eskaeraren presentzia urria eta norberaren iritzia sarreran aipatu ondotik ondorioan berrartzearen hutsunea dira nabarmenenak. Hau hobetze aldera, SDan sarrera eta ondorio atalak lantzea aukera ona dirudi.

4. Lexikoa, argudiaketaren metadiskurtsoa:

Aditz deklarati boei erreparatuz, testu guztiek estrategia edo baliabide berdinak erabiltzen dituztela erran genezake, *nire ustez* eta *pentsatzen dut* testu guztietan ageri baitira. Maiztasun gutxiagorekin, baina, *iruditzen zait* eta *ikusten dut* bezalakoak ere ageri dira. Hona hemen adibide batzuk: “*eskubide osoa duela **pentsatzen dut**... (...) nire **ustez** ez dutelako... (...) nire **iritziz** ez da egokia...*” (1), “*iruditzen zait familia ugarik modu... (...) deseroso sentituko zirela **uste dut**... (...) gainera nire **ustez** janzteko modu... (...) imajinazioa mugatzen dela **uste dut**... (...) azkenik **nire ustez**... (...) nire **ustez** hori nahiko sexista da...*” (6) eta “*oso ekonomikoa **ikusten** eta gaur egungo familiak... (...) extra bat bezala **ikusten dut**... (...) ez dut **ikusten** pisuzko arrazoirik..*” (9).

Bertzelako formulei begiraturaz, *baieztatu*, *aipatu*, *ados egon*, *garbi utzi*, *partekatu*, *adierazi*, *aitortu* eta *esan behar* aditzak aurki ditzakegu: “*esan beharra daukat...*” (2), “*irainak murrizten lagunduko lukeela baieztatzen dute... (...)* azkenik, *aipatu nahiko nuke*, *egia dela... (...)* *hauetan oinarritzen naiz... (...)* soberan dagoen erabakia *dela baieztatzeko*” (3), “*esan beharra da, nahiz eta...*” (4), “*idatzitako argudioekin ez nago erabat ados...*” (5), “*garbi utzi nahi dut...*” (6), “*nire adostasuna edo desadostasuna partekatuko dut zuekin... (...)* nire ikuspuntua *adieraziz... (...)* *ez nago guztiz ados... (...)* *uniformearen aurka nagoela aitortzen dut...*” (8), “*esan beharra dago ere...*” (9) eta “*guztiz ados nago...*” (10). Beraz, baliabide nahiko aberatsak erabili dituztela erran daiteke, mekanismo ohikoenez gain, bertzelakoak ere ekarri baitituzte (Calsamiglia & Tusón, 2001).

Lexikoari begiraturaz, gai honi estuki lotutako hiztegia errepikatzen dela aztertu dugu. Errepikapen gehien aurki ditzakegun testuak 2, 3, 6, 7, 8 eta 10. testuak direla erranen genuke, *uniforme* hitza 9 aldiz ere agertu baita. Termino honetaz gain, *ikastetxe* ere anitz erabiltzen dute. Hala ere, hau ordezkatzeko hainbat sinonimo aurkitu ditugu: *eskola*, *zentru* eta *Toki-Ona*, bertzeak bertze.

Edonola ere, egia da aurreko gaiak berraiatzeko kohesio formula zenbait ere erabiliak izan direla, izenordain anaforikoak edo baliabide lexikalak horien artean. Ikus ditzagun: “*arropa hori...*” (1) (*uniformeare*i erreferentzia eginez), “*beraz, hori kendu ezgero denak berdinak bilakatuko ginbateke...*” (1) (*adierazpen askatasuna*), “*ez dut uste denak berdin joate horrek...*” (1) (*uniformearen erabilera*), “*jantzi hauetan ez da berdintasuna bultzatzean... (...)* *jantzi hau...*” (2) (*uniformea*), “*hauek goizez erabili ondoren..*” (3) (*uniformea*), “*ideia honen kontra nago erabat.. (...)* nire *ikastetxean... (...)* *honek arazoren bat ekarri...*” (7) (*uniformearen erabilera*), “*mota onetako gastuentzat...*” (9) (*uniformearen erosketa*).

Testuren batean errepikapen hau saihesteko elipsia erabili dute: “*leotardoak dituzte uniformerako jantziak. Mutilek ordea, galtzak, alkandora eta jertsearekin osatzen dute*” (2). Aztertu ditugun kasuetan, egoki erabiliak izan dira, erreferentzia galdu gabe eta beharrezko perpausetan erabiliz. Alabaina, elipsia alde batera utzi eta errepikapenetara jo duten kasu gehiago dauzkagu; honen adibide gisa 2. testua dugu: “*neskak gonarekin bueltaka jarraituz, ez dut uste kanpoko itxuraren inguruan izaten diren irain eta bazterkeriak gutxituko zirenik. Izan ere, seguruenik gona janztea*

*gustatzen ez zaion jendea egonen da edo bere gorputza **gonarekin** ongi ikusten ez duenik ere. Egia da, batzuetan neskak **gona** belaunetaraino iristen denez gorago igotzen...*” (2).

Errepikapenak aurki ditzakegu, beraz, bai aditz deklaratiboei bai lexikoari begiratzen diogunean. Egia da hauek ekiditeko kohesio baliabide batzuk ere erabili dituztela, batez ere izenordain anaforikoak eta baliabide lexikalak, baina urriegiak direlakoan gaude. Dena den, oro har, ez da erreferentzia galtzen eta testu-kohesioa mantentzen da.

3.2.2. Testuaren atal nagusien azterketa:

Lehen aipatu bezala, eta Cuencaren (1995) lana berriro ekarriz, argudiatze sekuentziaren oinarrizko egitura hiru atalek osatzen dute: sarrera, garapena eta ondorio edo konklusioa. Gure corpuseko testuetako atal hauen azterketa zehatza izanen da jarraian eginen dena, beraz. Testuaren atal bakoitzaren osagai eta bereizgarriak aztertu eta ikasleek hau egiteko erabili dituzte baliabide linguistikoak bilduko dira. Galbahe honetaz gain, Larringan (1992a) eta Larringan (1992b) lanak ere baliatu dira.

5. Testuaren sarrera:

Gaiaren aurkezpena testu gehienek egiten dutela erranen genuke, bi testu bakarrik baitira eztabaidagaia zein den aipatzen ez digutenak: “*nire ustez ez dago uniformearen erabiltzeko inolako beharrik...*” (3) eta “*nire ustez uniformearen erabilerak kalte besterik ez ditu ekarriko...*” (1). Dena den, azkeneko kasu honetan, gaia ekartzen ez badu ere, eztabaida iturriaren nolabaiteko aipamena egiten du: “*zuen gutunaren erantzuna bidaltzen dizuet...*” (1).

Honela, bada, gainerako guztietan gaiaren aurkezpen bat aurki dezakegu, hau egiteko hainbat baliabide erabiltzen dituztelarik:

- Antolatzaileak erabiliz: “*Normalean, hirietan ikusten ditugu gu bezalako ikasleak... baina badirudi, jende askok... (...) beste batzuk **ordea**...*” (2),

“Denak dakigun bezala ikastetxe batzuetan, ikasleak derrigortuta daude ikastetxera...” (6). Aipatzekoa da bi testu hauek orokorpenerako erabili dituzten baliabideak kontuan harturik, abstrakziorako gaitasuna erakutsi dutela.

- Eztabaida-iturriaren aipamena eginez: *“gure zentroan ezarri nahi duzuen arau berriari buruz...”* (4), *“ikastetxean uniformearen erabilpenari buruzko nire ikuspuntua adieraziz...”* (5), *“zuzendaritza taldetik jakinarazi digute, gure ikastetxean...”* (7), *“Guraso elkarteak buruturiko eskaera aintzat hartuz, nahiz zuek proposatu zenituzten argudioak behatuz...”* (8), *“testu honetan, Toki-Ona ikastetxeko Guraso Elkarteak jarritako eskaintzari buruz...”* (10).
- Baliabide metadiskurtsiboen bidez: *“hurrengo lerroetan toki ona institutuan uniformearen erabilerari buruzko daukadan iritzia emango dut”* (9) eta *“testu honetan, Toki-Ona ikastetxeko Guraso elkarteak jarritako eskaintzari buruz argudiatuko dut”* (10).

Bertzalde, oro har, sarrerako baliabide metadiskurtsiboak erabili dituztela ikus dezakegu, bi testu soilik baitira hau agertzen ez dutenak: 1 eta 2. testua. Erabiltzen dutenen arten, erran bezala, testu batzuetan gaiaren aurkezpena egiteko erabiltzen dute baliabide hau. Hona gainerako kasuetako adibide adierazgarrienak: *“Hurrengo lerro hauetan...(…) nire iritzia emango dut... ondorengo argudioekin (...) azalduko dut...”* (4) eta *“nire adostasuna edo desadostasuna partekatuko dut zuekin, azkenin uniformearen erabilpenari buruzko nire ikuspuntua adieraziz”* (8). Argudio-bideari laguntzen dion mekanismoa dugu hau, aitzinera joaten eta irakurlea gidatzen laguntzen baitu.

Norberaren iritzi edo tesiaren aipamenari begira, iritzi garbirik gabeko testu bakarra dugu: 10. testua. Dena den, jadanik aipatu bezala, testu batzuk norberaren tesiaren aipamena ondoriorako utzi eta sarreran ez dute beraien iritzia zein den erraten. Honela, bada, sarreran iritzia aipatzen duten 6 testu dauzkagu. *“Nire ustez uniformearen erabilerak kalteak besterik ez ditu ekarriko...”* (1), *“nik, pertsonalki, nahiago dut eskolan uniformearen jantzi beharrik ez izatea...”* (2), *““nire ustez ez dago uniformearen erabiltzeko inolako beharrik...”* (3), *“zuzendaritza taldeak idatzitako argudioekin ez nago erabat ados...”* (5), *“baina nik ditudan argudioen arabera pentsatzen dut*

ikastetxean uniforme erabiltzea ez dela beharrezkoa...” (6), *“uniformea jartzeari buruz dudan iritzia zergatik den negatiboa eta zergatik ez nukeen nire ikastetxean uniforme erabiltzen hasi nahi”* (7). Aipatzekoa da, iritzi-gutunaren sarrera atalean iritzirik ez bada islatzen, argudiatze sekuentzia osatu gabe gelditzen dela, hartzaileari ez baitzaio ondorengo argudioek defendatuko duten tesirik aurkeztu.

Honetaz gain, jada aipatua dugun bezala, bi testu ditugu sarreran euren burua aurkezten dutenak: *“ni, ikastetxe honetako 4. mailan ikasten dudan mutil bat naiz...”* (1) eta *“batxilergoko 1.D taldeko ikaslea naiz...”* (9). Nabarmentzekoa da aurkezpen honetan euren rola zein den bakarrik aipatzen dutela eta ez norberaren izen-abizenak.

Honela bada, oro har, gure testuotako sarreran osagaien baten hutsunea nabari dela erran dezakegu, batean iritzia dela, bertzean aurkezpena dela, ia denetan osoki osatu gabe aurki baitezakegu. Norberaren aurkezpena da, nabarmenki, urrien ageri dena, norberaren tesiaren aipamenak jarraiturik. Osagai hauen galerak argudio sekuentziaren sarrerari ere eragiten diote: sarreran osagaiak falta izanik, argudio bidea eraikitzeke oinarriak ere falta izanen dira. Hala ere sarrerako baliabide metadiskurtsiboak eta gaia ekartzea ia testu guztiek egin dute, azken honetarako baliabide ezberdinak erabiliz, gaienera. Dena den, osagai hauek findu eta garatze aldera, SDan landu daitekeen atala izan daiteke hau.

6. Testuaren konklusioa:

Testuen azkeneko paragrafoa ondorio edo konklusioari dagokio. Testu bakarra dugu atal hau ekartzen ez duena: 7. ena. Bere tesia sarreran aipatu eta hau defendatzen duten argudioekin amaitzen du bere lana. Gainerako testu guztietan agertzen da, baina batzuetan bertzeetan baino osatuxeago. Aipatzekoa da eskaera bidezko formulatzea bi testuetan bakarrik ikusi dugula, 8 eta 9. testuetan, hain zuzen ere: *“beraz, biziki erregutzen dizuet, ez itzazue uniformeak arautu ikastetxean”* (8) eta *“garbi geratzen da uniformearen erabileraren kontra nagoela erabat eta espero dut zuen iritzia berdina izatea testu hau irakurri ondoren”* (9). Izan ere, gure kontsignari begiratu, testuetan eskaeraren bat egotea esperoko genuke, institutuko Zuzendaritza Taldeak ikasleen iritzia eskatzen baitu, esplizituko aipatua: *“hau guztia kontuan hartuta, eskolako Zuzendaritza*

Taldeak zuen iritzia jakin nahiko luke... (...) zuen erantzunaren zain gelditzen gara". Eskaerarik ez agertzea, gabezi gisa identifika daitekeen ezaugarria da.

Sei testuk konklusio marken bidez ematen diote hasiera beraien ondorioari: *"ondorioz eta aurretik aipatuagatik, nire irirtiz..."* (1), *"amaitzeko, nire ustez..."* (2), *"azkenik, testuaren hasieran esan dudana bezala ni..."* (4), *"ondorioz, eman ditudan argudio guzti hauengatik..."* (6), *"ondorioz, uniformearen aurka nagoela..."* (8) eta *"laburtuz, uniformeak..."* (10). Gainerakoak ondoriozko markarik gabe hasten dira, 3. testua bezala, errate baterako: *"nire argudioak sendoak direla uste dut eta hauetan oinarritzen naiz..."* (3).

Baieztapenak ere aurki ditzakegu zenbait kasutan. Orokorrean, ez da oso erabilia, baina lau testutan agertzen zaigu: *"ez da egokia gure ikastetxeko ikasleek uniforme bat jantzea"* (1), *"hauetan oinarritzen naiz toki ona institutuan uniformearen jantzea derrigorrezkoa izatea soberan dagoen erabakia dela baieztatzeko"* (3), *"ondorioz, uniformearen aurka nagoela aitortu nahi dut (...) uniformearen eramatea arautzeak ikaslearen adierazten askatasuna muigatzen du..."* (8) eta *"garbi geratzen da uniformearen erabileraren kontra nagoela erabat..."* (9).

Azkenik, 8.testuan ikus dezakegun ezaugarri bat ere aipatu nahi genuke: testuko bortzgarren argudio bat aurki dezakegu ondorioan, hots, ez dagokion lekuan. Honelaxe ematen dio argudio berri honi hasiera: *"ondorioz, uniformearen aurka nagoela aitortzen dut goiko argudioetan oinarriturik zein orain aurkeztuko ditudanengatik: uniformearen eramatea arautzeak ikaslearen adierazpen askatasuna mugatzen du, baita ikasketetan errendimendu akademikoa baldintzatu eragin ditzakeen bazterketengatik edo irainengatik. Beraz..."* (8).

Ondorioa egon badago, beraz, gure corpuseko testuetan, batzuk konklusio marken bidez formulatuak, gainera. Argudiatze sekuentziari ere bukaera egoki ematen diotela erran daiteke. Baina, atal honi dagokionez ere, osatu gabeak daudela erran dezakegu, batez ere eskaeraren formulazioari begiratzen badiogu. Aipatu bezala, gure kontsignarekin testuetan eskaera bidezko formulazteren bat egotea esperoko genuke, baina gutxi dira hau egin dutenak. Hortaz, SDan landu daitekeen osagaia izan daiteke ondorio atalaren osaera hau.

7. Argudiaketaren garapena:

Testuaren gorputza osatzen duen atala aztertuko da jarraian. Aipatu dugun bezala, atal hau tesiaren aldeko argumentuen aurkezpen eta defentsarekin eta aurkako argudioen gezurtatzearekin osatzen da (Cuenca, 1995). Honela, bada, lehenik argudiatzearen bereizketa eta antolaketarako balio duten antolatzaileen analisia egingen da; bigarrenik, perpaus mailako operadoreen azterketa eta sailkapena egingen da Larringan (1992a) lanaren laguntzarekin; hirugarrenik, argudioen kalifikazio edo deskalifikazioak ikusiko dira; laugarrenik, ezeztapenak aztertuko dira; eta bortzgarrenik, eta azkenik, galdera erretorikoak izanen dira aztergai.

Lehenik eta behin, beraz, testu osoaren plangintza orokorra bideratzen duten antolatzaileei erreparatu diegu. Larringanek (1992a) erraten digun bezala, konexioan eragiteaz gain, testuaren segmentatze edo ataltzean ere eragiten dute honakoek. Bi ikuspegi desberdinetatik araka ditzakegu: batetik, ikuspegi sintaktikotik, identifikatze eta banaketa burutuz; eta ikuspegi diskurtsibo batetik, bertzetik, diskurtsoko osagaien artikulatzeari buruzko azterketa eginez.

Honela, bada, argudiatzearen bereizketa eta antolaketarako honako antolatzaile hauek erabiltzen dituzte: *“lehenengo eta behin, zuen gutunean diozuen... (...) bigarrenez, bakoitzak berak nola jantzi... (...) hirugarrenik, ez dut uste denak berdin joate horrek...”* (1), *“lehenengoa, neskaren uniforme eta mutilaren uniformearen arteko aldea da... (...) bestalde, nesken gonarekin bueltaka...”* (2), *“alde batetik, jende askok dioenez... (...) beste alde batetik, pertsona batzuk... (...) gainera, modulueta dauden ikasleentzat... (...) azkenik, aipatu nahiko nuke, egia dela berdintasuna bultzatuko lukeela...”* (3), *“alde batetik, jendea beste batzuk kritikatzeko hasiko litzateke... (...) bestalde, nik uste dut inork ez duela erabaki bejar zer modutan... (...) hau dena esan ondoren, pentsatzen dut...”* (5), *“hasteko, egia da uniforme bat gure eguneroko janzkeran... (...) egia dena ere da kanpoko itxura dela eta... (...) azkenik nire ustez uniformeak ez zuen berdintasuna...”* (6), *“lehenik, uniformearen ezarpenak... (...) bertzalde, uniformeak janzkerarekiko diskriminazioak... (...) hirugarren zatiri dagokionez, niri iritziz institutuko ikasleen artean... (...) azkenik, uste dut uniformearen ezarpena froga nahikoa dela...”* (8), *“hasteko, pentsatzen ikastetxetan erabiltzen den uniformearen prezioa... (...) jarraitzeko, ikasleak normalean*

ez daude uniformearen erabileraren alde...” (9), “**hasteko**, krisia dela ikusirik eta dirua... (...) **ondoren**, nire ikuspuntutik ikasleek erabiltzen duten arropa... (...) **gero**, guztiz ados nago ikastetxean uniformeak... (...) **azkenik**, ez dut uste uniformearen ondorioz ikasleak...” (10). Marka bedi antolatzaile hauek paragrafo bakoitzaren hasieran agertzen direla, hots, argudio ezberdinak paragrafoetan banatzeaz gain, antolatzaileak ere badarabiltzatela hau nabarmentzeko. Ikus daitekeen bezala, ia testu guztiek erabiltzen dituzte honelako mekanismoak eta nahiko aberatsak dira.

Bigarrenik, perpaus mailako operadoreak ditugu. Hauek ere ugariak dira eta mota ezberdinetakoak, gainera. Larringanen (1992a) sailkapenaren arabera banatu ditugu:

➤ **Gairatzea egiteko balio dutenak:** ez dugu honelakorik aurkitu argudiaketaren garapenean zehar.

➤ **Argudioen garapen eta kateamendurako balio dutenak:** “*Honela, arropa guxtiago beharrean gehiago...*” (1), “**hau da**, ikastetxe guztietan neskak alkandora... (...) **honekin adierazi nahi dudana zera da...** (...) **izan ere**, neskak gona janztea derrigorrezkoa dute... (...) **nesken gonarekin bueltaka jarraituz**, ez dut uste... (...) **izan ere**, seguruenik gona janztea gustatzen ez zaion jendea egonen da... (...) **izan ere**, aste guztiraiko arropa finkoa edukitzeak...” (2), “**hortaz**, uniforme eta arropa, biak erosi beharko lituzkete... (...) **azkenik**, **aipatu nahiko nuke egia dela...**” (3), “**modu batera esan daiteke**, uniformeak... (...) **egia da**, horrek asko laguntzen duela, baina pertsona bat libre da nahi duen bezala... (...) **baita ere**, uniformeak berdintasuna ekartzen du... (...) **esan beharra da**, nahiz eta...” (4), “gutxienez hiru edo lau erosi behar dira, **adibidez**, bata garbitzen ari den bitartean... (...) **gainera** kirola egiteko uniforme eta beharko genuke (...) **baino ere uniformeaz aparte** ikasleak kalerako arropa... (...) eta **gainera** arazo bat suposatzen dute... (...) **gainera** nire ustez jantzeko moduak asko esaten du...” (6), “ikasleen familiek jantziarengatik ordainketa bat gauzatu behar badute **orduan** errentagarria deritzat zalantzarik gabe; **aldiz**, jantzia familiei dohainik entregatzen bazaie... (...) **izan ere**, egoera okerragotu daiteke, ikasle iraindu bati... (...) **gainera**,

uniformerik erabili beharrik ez duten...” (8) eta “**gainera** *uniformeekin dirua aurkeztuko bagenu ere... (...) gainera* *uniformeak sexuen aldetik oso diskriminatzaileak... (...) esan beharra dago ere* *norberak egunerokoan...*” (9).

➤ **Froga aldia: oso argudiaketazkoa:** “*mutilak, ordea, galtzak alkandora eta jertsearekin osatzen dute... (...) baina hala ere, ez dut uste lagunarteko arazoak...*” (2), “*nire ustez, ordea, gastua handiagotu egiten du uniformeak... (...) baina nire iritziz jendeak berdin berdin iraintzen jarraituko luke...*” (3), “*dena den, ikasle guztiak berdin ez errespetatzeko joera... (...) nolana ere, ikasleak ez du zertan lotura estuagoa sentitu...*” (8) eta “*baina non gertatzen da orduan guztiok izan beharko genukeen...*” (9).

➤ **Azpimarratze edo errekapitulazioarako balio dutenak:** “*argi ikusten da arropa gehiago beharko genuela uniformeaz aparte...*” (5) eta “*arrazoi handi eta garrantzitsuena bakoitzaren izaera adierazteko...*” (7).

➤ **Gogoratzeko balio dutenak:** “*lehen esan dudana bezala espresio askatasuna ere mugatuko genuike...*” (5).

➤ **Konklusioa egiteko balio dutenak:** “*beraz, ez dut uste ekonomikoki errentagarria suertatuko litzatekeenik... (...) hau dena esan ondoren, pentsatzen dut...*” (5), “*beraz, nik ez dut oso ekonomikoa ikusten eta... (...) ondorioz, uniformea aurrezteko modu bat izatetik urrun... (...) beraz, alde batetik lortu daitekeen berdintasuna beste alde batetik galduko lirateke...*” (9), “*honen ondorioz diru gutxiago gastatuko zuten gazteen gurasoek... (...) ondorioz, neska honi gaizki edo aurpegi arraroarekin...*” (10).

Laburbilduz, badira lotura lineala burutzeko erabiliak (*ere, baita ere, hala ere, gainera*); badira, baita ere, diskurtsoari aurrera eragitekoak (*alde batetik, bertzetik, bestalde, lehenbizi, bigarren...*) badira, orobat, erlazioak mantentzeko gai direnak (*-ri*

dagokionez, bada, beraz, hau dela eta...), badira, azkenik, iruzkina edo meta-diskurtsoa bideratzeko erabili unitateak (*hau da, laburbilduz, zehazkiago, argudioen artean...*) (Larringan, 1992b). Argudiatzearen kateamendu eta garapenean, beraz, aberastasuna erakusten du corpusak, ezberdinak, anitzak eta, oro har, ongi erabiliak baitira.

Hirugarrenik, argudioen kafilikazio edo deskalifikaziorik egiten den begiratu dugu. Deskalifikazio bakarra aurkitu dugu: “*zuen gutunean diozuen arropa gutxitzea, hau da arropa gutxiago erabili eta erosi beharko genukeela, **gezurra da***” (1). Bertzearen argudioa baliogabetzeko erabilitako formulatze hau kasu honetarako ez dela egokiena erran daiteke, idatzizko egoera formal batean baikaude eta deskalifikazioak ez baitira egokiak honelako egoeretarako.

Laugarrenik, ezeztapenei erreparatu diegu. 7 testuetan ikusi dugu kontsignako argudioen ezeztapenen bat: “*nesken gonarekin bueltaka jarraituz, **ez dut uste** kanpoko itxuraren inguruan izaten diren... (...) **ez dut uste** lagunarteko arazo horik konponduko zirenik...*” (2), “*hori ez zait modurik onena iruditzen, zuk problema ekonomiko bat baduzu...*” (4), “*ekonomikoki errentagarriagoa izango litzatekeela esanten du, baina niri ez zait horrela iruditzen... (...) **ez dut uste** ekonomikoki errentagarriagoa...*” (5), “*uste dut bakoitzal bere estiloa eduki behar duela eta **ez dela ona** denok arropa berdinarekin ikastetxera joatea... (...) **ez dut uste** hau oso onuragarria denik...*” (7), “*ikasleak normalean ez **daude** uniformearen erabileraren alde...*” (9), “*Ez dut uste*” da gehien baliatu dutena, baina “*iruditu*” edo “*izan*” aditzak erabiliz eginiko ezeztapenak ere aurki daitezke.

Bortzgarrenik, eta azkenik, galdera erretorikorik ba ote dagoen aztertu dugu; bi testuetan ikusi ditugu: “*ezberdintasun handi bat ikusten da, zergatik, zeba ezin dut neskak galtzak eraman gona eraman beharrean?*” (6) eta “*baina non geratzen da prduan guztion izan beharko genukeen adierazpen askatasuna norberak ezin badu egunero jarri behar duen arropa aukeratu?*” (9). 6. testuan ondorioan aurki dezakegu, bere tesia aipatu ondotik hau azpimarratzeko erabilitako baliabide gisa; 9. testuan, aldiz, argudiatze sekuentziaren gorputzean dago, kontzesio baliabide moduan erabilia.

Aberastasuna da, batez ere, atal honek erakusten diguna. Argudioen garapenerako baliabide ezberdinak erabili dituzte, bai argudiatzearen bereizketa eta egituraketan eta bai perpaus mailan ere. Bertzelako elementuak urri ageri dira, galdera

erretorikoak edo bertzelako erreferentziak, bertzeak bertze, baina argudiatzearen kateamendua ongi egina dago eta diskurtsoa egoki gidatua.

3.2.3. Argudiozko diskurtsoaren eragiketak:

8. Iritzia eman eta hari eutsi:

Bai igorlea, bai hartzailea² eta bai aditz deklaratioak³ aztertuak ditugunez jada, bertze modalizazio baliabideak aztertuko dira atal honetan. Igorlearen modalizazio mekanismoak ikusiko dira lehenik, ziurtasuna, probabilitatea, agintera baliabideak eta eskari bidezko formulatzeak nola egin dituzten ikusiz. Ondotik, markatzaileak aztertuko dira, bai zenbatasuna bai maiztasuna adierazteko erabiliak izan direnak. Gero, igorleak bere mezu edo edukiari jartzen dion ezaugarritze maila ikusiko da, baita honen gainean duen iritzi edo jarrera ere. Azkenik, ebaluatze mekanismoak aztertuko dira.

Modalizatzaile mekanismoek idazleak mezuarekin duen atxikimendu maila erakusten digute, baita irakurlearen gogoeta-bidea bideratu eta bere konplizitatea lortzen saiatu ere. Honela, mezuaren garrantzia azpimarratzeko, balioa arintzeko, ziurtasuna adierazteko... erabiltzen dira, hots, idazleak edukiari zenbaterainoko balioa eman nahi dion erakusten digute.

Alde batetik, igorleak bere mezuarekiko duen ziurtasuna adierazteko erabili dituenak ditugu. Espazio kontuak direla ere, adibide adierazgarrienak ekarri ditugu hona: *“irainak murrizten lagunduko lukeela **baieztatzen dute...**”* (3), *“**ez nago erabat ados...**(...) **argi ikusten da** arropa gehiago beharko genuela... (...) **inork ez du erabaki behar zer modutan jantzi behar dugun...** (...) **bakoitza librea da nahi duen bezala jantzeko...** (...) **pentsatzen dut nire iritzia **argi gelditu dela...**”** (5), *“**ni ideia honen kontra nago erabat...** (...) adierazteko askatasuna **ez du ahalbidetzen, kontrakoa baizik**”* (7), *“**errentagarria deritzat zalantzarik gabe...**(...) **baieztatzen duen ideiarekin ez nator bat...** (...) **aurka nagoela aitortzen dut...** (...) adierazpen askatasuna**

² “Argudio-egoerako elementuen (parametroen) trataera nolakoa den” deituriko atalean.

³ “Lexikoa, argudiatzearen meta-diskurtsoa” deituriko atalean.

mugatzen du...” (8), eta *“guztiz ados nago ikastetxtean uniformeak berdintasuna bultzatuko... (...) uniformeak hauek kenduko ditu...”* (10).

Bertzalde, ziurtasun osoa ez baina nolabaiteko probabilitate edo posibilitatea erakusten digutenak ere badauzkagu: *“baina badirudi, inguru honetan ere hasi direla...”* (2); baita zalantza adierazten dutenak ere: *“seguraski berdintasuna bultzatuko lukeela...”* (9).

Aginterako forma bat ere agertzen zaigu, gainera: *“ez itzatzue uniformeak arautu ikastetxean...”* (8). Egoera komunikatiboari begira, aditz forma hau erabiltzea ez da egokia kasu honetan.

Eskaria egiteko balio duten mekanismoak ere badauzkagu: *“biziki erregutzen dizuet...”* (8) eta *“espero dut zuen iritzia berdina izatea testu hau irakurri ondoren...”* (9). Iritzi-gutunaren testu-generoan eskari bat egotea espero den arren, *“erregutu”* aditza erabiltzea ez da egokiena hau egiteko. Eskari bidezko formulatzeen urritasuna eta daudenetan ere gabeziak daudela aztertzeak, SDaren modulu batean modalizazioa eta, batez ere, eskaria formulatzeko modalizazio baliabideak lantzeko aukera ematen du.

Honetaz gain, zenbatasuna adierazten duten markatzaileak ditugu argudioen indartze edo baliogabetze bezala: *“jende askok uniformeak janzteak ongi edo beharrezkoa...”* (2), *“alde batetik, jende askok dioenez ekonomikoki errentagarriagoa... (...) pertsona batzuk uniformeak...”* (3), *“nahiz eta irain batzuk alde batera utzi...”*(4), *“familia ugari modu honetan uniformeak edukitzearekion... (...) argudio guzti hauengatik...”* (6), *“gure ikastetxean beste askotan bezala... (...) arrazoi bat baino gehiagotatik... (...) askok esaten dute ikasleak ikastetxearen... (...) guraso askok uniformeak ekonomikoagoa...”* (7) eta *“bertze ikastetxe batzuetan bezala... (...) ikasle guztiek dirua erabiltzea... (...) diru anitz gastatu egiten dute arropan...”* (10).

Markatzaileekin jarraituz, maiztasuna adierazten duten batzuk ere badauzkagu: *“egia da, batzuetan neskak gona belaunetaraino...”* (2), *“sexuen aldetik oso diskriminatzaileak izan ohi dira...”* (9) eta *“mutilekin ere batzuetan gertatzen da...”* (10).

Igorleak bere mezu edo edukiari jartzen dion ezaugarritze maila erakusten diguten mekanismoak ere badaude: “*normalean, hirietan ikusten ditugun...*” (2), “*ez nago erabat ados... (...) pentsatzen dut nire iritzia argi gelditu dela...*” (5), “*denok dakigun bezala, ikastetxe batzuetan... (...) baino jendeak orokorki pentsatuta daukaten...*” (6), “*ni ideia honen kontra nago erabat...*” (7) eta “*ikasleak normalean ez daude uniformearen erabileraren alde...*” (9).

Modalizazio baliabideekin jarraituz, igorlearen iritzia, jarrera eta, kasuren batean, beharizana zein den aditzera ematen diguten errekurtsioak ere ageri dira:

1. Adjektiboak: “*nire argudioak sendoak direla uste dut eta hauetan oinarrizten naiz Toki Ona institutuan unifomea jartzea derrigorrezkoa izatea soberan dagoen erabakia dela baieztatzeko...*” (3), “*arau berriaren buruz nire iritzia...*” (4), “*ulergarria iruditzen zait familia ugarik... (...) ezberdintasun handi bat ikusten da...*” (6), “*nire iritzia zergatik den negatiboa eta...*” (7), “*“uniformea aurrezteko modu bat izatetik urrun gastu extra bat... (...) ez dut ikusten pisuzko arrazoirik hauen erabilpena behartzeko...”* (9),
2. Graduatazaileak: “*eskubide osoa duela pentsatzen dut...*” (1), “*ez dago uniforme erailtzeko inolako beharrik*” (3), “*inork ez du erabaki behar zer modutan jantzi behar dugun...*” (5), “*ez dut uste hau oso onuragarria denik...*” (7), “*froga nahikoa dela ikasle bat ikastetxe...*” (7), “*uniformearen prezioa oso garestia dela... (...) gainera uniformeak sexuen aldetik oso diskriminatzaileak...*” (9) eta “*hagitz aproposa iruditzen zait... (...) guztiz ados nago ikastetxean... (...) nahiz eta datu hauek hagitz txarrak ez izan...*” (10).
3. Esamoldeak: “*eta ez hanka erakustarazten dituen gona...*” (2), “*modu batean, esan daiteke, uniformeak errentagarriagoak izan daitezkeela... (...) ez zait modurik onena iruditzen zuk problema ekonomiko bat...*” (4) eta “*uniformea aurrezteko modu bat izatetik urrun gastu extra bat...*” (9).

Azkenik, ebaluatze mekanismoak dauzkagu, hots, mezuaren egiazkotasuna edota garrantzia azpimarratzen dutenak.

1. Adberbioak: “*nik **behintzat** eta...*” (1), “*jendeak **berdin berdin** iraintzen jarraituko du...*”, “*jantzietan diru **gutxiago** gastatzen duzulako... (...)* *jantzietan **berdin berdin gutxiago** gastatzen da...*” (4), “*horrek **azken finean**, kaltea **baino** ez du eragiten... arazoak **bakarrik** ekarriko lizkigukelako...*” (5), “*edozein arroparen beharrik gabe...*” (8) eta “*beste edozein dendatan aurki daitezke...*” (9).
2. Esapideak: “*kalteak **besterik** ez ditu ekarriko...*” (1), “*ez gara **alde batetik bestera** uniformearekin ibiliko...*” (5), “*uniformea erabiltzearen kontra nagoela **garbi utzi** nahi dut...*” (6) eta “*errentagarria deritzat **zalantzarik gabe**...*” (8).

Modalizatzaile mekanismoak, beraz, erabili direla ikus daiteke, mota ezberdinetakoak eta egoera ezberdinetan, gainera. Dena den, eskari bidezko formulatzea da gabezia nabariena hemen ere. Aipatu dugun bezala, iritzi-gutunaren testu-genero eta kontsignan aipatutako egoera komunikatibori jarraiki, eskariren bat egitea espero da testuotan, baina eskaria formulatzeko modalizatzaile baliabideak gutxi eta oker erabiliak izan direla erran daiteke. SDan sakondu daitekeen atala izan daiteke azken hau, beraz.

9. Birformulatzea:

Ia testu guztietan ageri zaigu birformulatzeren bat, hots, eztabaidagaiaren edo kontsignako ikuspuntuaren ekartzea. Egia da erabilitako mekanismoak ez direla oso anitzak, ezta, kasuren batean, oso argiak ere, baina birformulatzea egon badago. Ikus ditzagun adibide batzuk: “*jende askok dioenez ekonomikoki errentagarriagoa da... (...)* *pertsona batzuk uniformeak kanpoko itxuraren... (...)* *egia dela berdintasuna bultzatuko lukeela...*” (3), “*lehenengo argudioan, esate baterako, ekonomikoki errentagarriagoa izango litzatekeela esaten du, baina...*” (5), “*egia da uniforme bat gure eguneroko... (...)* *egia dena ere da kanpoko itxura dela eta sortzen diren...*” (6), “*uniformea janztea nahi dutenek berdintasuna bultzatzen duela diote... (...)* *askok esaten dute ikasleak ikastetxearen parte sentituko garela... (...)* *guraso askok uniformeak ekonomikoagoa dela diote...*” (7), “*uniformearen ezarpenak errentagarritasuna bermatzen duelako*

argudioarekin ez nago guztiz ados... (...)uniformeak janzerarekiko diskriminazioak murrizten dituela baieztatzen duen ideiarekin ez nator bat” (8).

Aitzineko gaiak berraipatzeko erabili diren kohesio formulen analisia jadanik egina dugunez⁴, aditz kohesioaren inguruko ohar bat egingen dugu.

Nahiz eta ezaugarri hau ez duten testu anitzek agertzen, ondoriozko formak erabili beharrean lehenaldiko aditz formak erabiltzen dituzten lau testu daude, batean bi formak nahastuta ageri badira ere: bigarren, seigarren eta hamaikagarren testuak eta, bi formak dituen, bortzgarrena. Ikus ditzagun adibideak: “*eta uniformeak horrerri kontra eginen zion... (...) arraro begituko ziotela... (...) berdintasuna bultzatuko zuela*” (11), “*ikasleak ezingo zuten pertsona guztien...*” (6), “*arazo horiek konponduko zirenik*” (2), “*arropa gehiago beharko genuela... (...) onura handiegirik ekarriko lukeenik... (...) beti berdin joango ginatkelako*” (5). Dena den, azken kasu honetan, egoki erabilitako kasuak gehiago dira iraganaren erabilerarenak baino.

Honela, bada, batzuetan erreferentzia horren argi ikusten ez bada ere, corpusean birformulatzea ageri dela erran daiteke, kontsignako argudioak euren lerroetara egoki ekarriz.

10. Aburu edo ikuspuntu baten kontrajartzea, baliogabetzea edo gezurtatzea:

Atal teorikoan aipatu bezala, eta berriro ere Camps (1995) lana aipatuz, bi dira kontra-argudiaketa eredu nagusiak: errefutazioa eta gezurtatzea. Atal honetan, gure testuetan dauden gezurtatze adibideak ekarri ditugu lerroetara, hau da, iritzi-emailearen eta bere tesiarekin ez datorren argudioari erreferentzia egin eta hau ezeztatzen duten kasuak.

Honako hauek dira, bada, objezioa adierazteko erabiltzen dituzten esamoldeak:

⁴ “Lexikoa, argudiaketaren metadiskurtsoa” deituriko atalean.

- Deskalifikazio bidez: *“arropa gutxiago erabili eta erosi beharko genukeela, **gezurra da** arropa hori, uniformeak, eskolan bertan bakarrik erabiliko baitgenuke... (...) honela arropa gutxiago beharrea gehiago beharko genituzke (...) ikasleen arteko maila sozialak baztertzeko balioko zuenik nire ustez **ez duelako zentzurik**”* (1).
- Indikatiboaren erabilera: *“ez dut uste kanpoko itxuraren inguruan izaten diren irain eta bazterkeriak gutxituko zirenik, izan ere...”* (2) *“alde batetik, jende askok dioenez ekonomikoki errentagarriagoa... (...) nire ustez ordea gastua handiagotu egiten **du**... (...) arropa ezberdina beharko lukeelako; hortaz, (...) **gastua handiagotzen da txikitu beharrea**”* (3)
- Hipotetikoaren erabilera: *“arropa ezberdina beharko **lukeelako** (...) alde batetik, jende askok dioenez ekonomikoki errentagarriagoa... (...) pertsona batzuk uniformeak... (...) baieztatzen dute, baina nire iritziz jendeak berdin berdin iraintzen jarraituko **luke**... (...) hobeto geratuko **litzaiekeelako**”* (3), *“lehengo argudioa, esate baterako... (...) esaten du, baina niri ez zait horrela iruditzen... (...) argi ikiusten da arropa gehiago... (...) beraz, ez dut uste ekonomikoki errentagarriagoa suertatuko **litzatekeenik**”* (5) eta *“bertzalde, uniformeak... (...) murrizten dituela baieztatzen duen ideiarekin ez nator bat. Izan ere... (...) eman **diezaiokeelako**...”* (8).

Honetaz gain, ikuspuntu baten aitzinean zalantzak adierazteko erabilitako esamolde edo baliabideak ere ikusi ditugu, gutxitxo bada ere: bi galdera erretoriko eta ahaleraren bidez osaturiko perpausak. Ikus ditzagun: *“esan beharra daukat, gaur egun ekonomikoki dugun... errentagarriagoa izan daitekeela”* (2), *“modu batera, esan daiteke, uniformeak errentagarriagoak izan daitezkeela...”* (4), *“zergatik, zeba ezin dute neskak galtzak eraman gona eraman beharrea?”* (6), *“baina non geratzen da orduan guztiok izan beharko genukeen adierazpen askatasuna norberak ezin badu egunero jarri behar duen arropa aukeratu?”* (9).

Gezuratzeko baliabideren bat desegokia bada ere, deskalifikazioa, kasu, corpusean aurki daitekeen mekanismoa dela erran daiteke, kuantitatiboki begiratuta testu erdietan baino gehiagotan ageri baitzaigu. Deskalifikazioaren kasua alde batera utzita, gainerakoak egoki osatu eta ekoitziak izan dira, erabili mekanismoetan aniztasun eta aberastasunik sumatzen ez bada ere.

11. Negoziaketa:

Hauxe dugu bigarren kontra-argudiatze mota nagusia, kontzesioa, hain zuzen ere. Kontzesioa defendatzen den tesiaren aurkakoa den ideia onartu ondotik bere indar eta balio argudiatzailea mugatzean datza (Camps, 1995). Mekanismo erabiliena “*egia da... baina...*” mekanismoa dela ikusiko dugu.

Espazio kontuak direla eta, adibide adierazgarrienak ekarri ditugu hona, 3, 4 eta 8. testuetatik jasoak: “*pertsona batzuk uniformeak... (...) baina nire iritziz jendeak berdin berdin iraintzen jarraituko luke... (...) aipatu nahiko nunke, egia dela berdintasuna bultzatuko lukeela, baina aldi berean monotonian eroriko ginatkeela uste dut eta...*” (3), “*alde batetik, lagundu egingo zuen hilabete bukaera ailegatzan ez diren familiei. Baina, hala ere, hori ez zait modurik onena iruditzen... (...) egia da horrek asko laguntzen duena, baina pertsona bat libre da nahi duen bezala... (...), esan beharra da, nahiz eta irain batzuk alde batera utzi denak berdin goazelako, beste nonbaitetik aterako genituzkeela iraintzeko arrazoiak*” (4), eta “*uniformearen ezarpena froga naikoa dela ikasle bat... (...) nolana ere, ikasleak ez du zertan lotura estuagoa sentitu...*” (8).

Honetan ere, gezurtatzen kasuetan bezala, ondorio bertsua atera dezakegu: kontzesioa egiteko baliabideak ez dira ezberdin eta anitzak, baina honek ez du testuotan kontzesioa bera ez dagoenik adierazten; erabili duten mekanismoa izan da eta erabili dutenek egoki egin dute.

3.3. SEKUENTZIA DIDAKTIKOA:

Behin testuen analisia zertan den ikusi ondotik, ekin diezaiozun SDaren diseinuaren azalpenari. Sekuentziek nahi adina modulu izan ditzakete, baina kasu honetan lau moduluk osatua da. Corpusaren azterketan ikusi diren gabezien artean, SD jakin honetarako honako hauek lehenetsi dira: iritzi-gutunaren testu-generoaren planifikazio orokorraren osagaiez eta bakoitzaren nolakotasunaz jabetzea, iritzi-gutunen hasierako eta amaierako formulez baliatzea, modalizazio baliabide edo mekanismo

zenbaiten erabileran sakontzea eta ondo-testuaren ekoizpena burutzea. Ondoren, zehaztasunez aurreratuko dugu modulu bakoitzaren edukia.

Lehenbiziko modulua: iritzi-artikulua eta iritzi-gutunaren arteko banaketa izanen dugu oinarri, batez ere iritzi-gutunean zentratuko garelarik. Testu-genero honen osagai nagusiak zein diren jakin eta hauek erabiltzen trebatzea izanen da xede.

Bigarren modulua: generoaren planifikazio orokorrari lotuta, iritzi-gutunetako hasiera eta bukaera formulak lantzea izanen du helburu. Bai batean eta bai bertzean agertu beharreko datuak zein izan behar duten identifikatu ondoren, ikasleak, pausuz pausu, euren ekoizpen propiora bideratuko dira.

Hirugarren modulua: testu batean ager daitezkeen modalizazio mekanismoen erabileran sakontzea lortu nahi da modulu honetan, batez ere eskariaren formulatze mekanismoetan. Iritzi-emaileak eskaria egiteko eta hau hartzailearen ikuspuntutik onargarria izateko erabili daitezkeen baliabideak landuko dira.

Laugarren modulua: orain arteko moduluetan ikasitakoa praktikan jartzeko momentua izanen da hau. Eraiki eta eskuratu diren ezagutzak erabiliz, ondo-testua ekoitzi beharko dute. Honetarako, tailerrez tailer ikasi dutena biltzen duen kontrol-zerrenda ondoan izanen dute, metodologia honek agintzen duen eran. Kontrol-zerrenda hau, moduluen amaieran emanen da, ondo-testuen ekoizpenerako lagungarri.

Moduluekin hasi baino lehen, **hitzarmen didaktikoa** gogoratuko da. Hitzarmen honetan, denen parte hartze eta inplikazioa bilatze aldera, egitasmoa zein den zehaztuko da: argudiozko testuen barruan iritzi-gutunaren ezaugarri eta osagaiak identifikatu eta erabiltzen trebatzea. Proposatutako hizkuntza komunikaziorako gaitasun hauek lantzerakoan, Nafarroako Curriculum Ofizialak D ereduko Batxilergoko lehenbiziko mailarako eskatzen dituen eskakizunak bermatzea da helburua, beti ere, ikasleen gaitasun errealetan oinarrituta.

1. MODULUA: Iritzi testuak ezagutzen: iritzi-gutuna

1. JARDUERA: Zer dakigu argudiatzeari eta argudio testuei buruz?

Argudioak egunero erabiltzen ditugu geure bizitzan. Gertakizun, arazo edo fenomeno baten inguruan dagoen iritzi edo tesi bat egiaztatzeko edo baztertzeko ematen diren aldeko edo kontrako arrazoiz osaturiko testua da argudiozkoa.

Hausnarketa eginen dugu gaian barneratu baino lehen. Horrela, argudio-testuei buruz dituzuen iritziak zer nolakoak diren ezagutuko dugu guztion artean eztabaidatuta.

- Ezagutzen duzue argudio testurik? Zein motatakoak dira?
- Non uste duzue agertzen direla gehienbat argudio-testuak?
- Non irakurri dituzue? Pentsan?
- Zein uste duzue dela argudio-testuen helburu nagusia? Bertzearengan eragina izatea, konbentzitzea? Nola lortzen dute hau?

2. JARDUERA: Testu – generoak ezagutzen

Binaka edo hironaka elkartu eta taldeko bozeramailea zein izanen den aukeratu. Taldea adostasun batera iristen ez bada, irakasleak lagunduko die. Erreparatu ondorengo testuei:

1. TESTUA:

Azkarrak

Anjel Lertxundi

Uste genuen teknologia berriek lan-orduak gutxituko zizkigutela eta aisialdia aberastu. Aitzitik da: lana duenak, orain berrogei urte baino berrehun ordu gehiago sartzen omen ditu urtero lanean. Hala ere, alferrik lezionatuko gaituzte *Slow* (mantso) bizitzearen aldeko kalamatikekin.

Euskarak *azkarra* deitzen dio adimen argiko pertsonari: izango da tipo azkar baten adimenak lotura, erlazio, bidaia kontzeptual azkarrak egiten dituelako. Pernando Amezketarra ez zen ikasia, baina azkar sona du. Aita Larramendi bietatik omen zen, jakintsua eta azkarra. Baina, kontatu digutenaren arabera, biak ziren patxada handikoak, fatxada lasaikoak. Azkarrak zirelako izango ziren patxorra handikoak.

Eta guri zer Pernandok, guri zer Larramendik? Gaur igandea izango da egun guztian, eta

piztuta edukiko ditugu mugikorrek, emailak begiratuko ditugu, *onlain* segituko dugu gure premia ustez bazterrezinekin. Ez al zaio tontoa deitzen azkarraren kontrakoari?

Iturria: *Berria: Hitz beste* - <http://www.berria.eus/paperekoa/1740/023/001/2016-05-22/azkarrak.htm>

2.TESTUA:

Muriel Casals, elkarrizketaren indarra

2016-02-16 / “Ara”

Asko idatzi da azken urteotan prozesu subiranista nola bideratu behar zenari buruz, baina batzuetan, pertsona baten eredu baina ez da behar bide egokia zein den jakiteko. Hauxe da Muriel Casalsen kasua, zorigaitzak une erabakigarri batean eraman du, eta amorru, bidegabekeria eta ezinaren sentsazio amaigabearekin utzi gaitu. Baina geratuko dena honakoa da: bere modu sosegatu eta sendoa, Kataluniak bere bidea zergatik erabaki behar duen azalduz. Betiko geratuko da bere izaera baketsua, irribarre gozoa, ahots lasaia eta gertukoa, begirada gardena... horrek guztiak bihurtzen zuen adostasunak topatzeko pertsona ezin hobea, negoziatioak desblokeatzeko, konfiantza giro nahikoa sortzeko aurrera egiteko.

Bizitza ulertzeko modu bat bilakatu zuen elkarrizketaren indarra eta zubiak eraikitze gaitasuna, eta hori aktibismora eramaten jakin zuen. Etsi gabe jarraitzea eta baikortasun hautsiezina dira bere legatu onenak: sinestuta ezin dela irabazi konbentzitu gabe, eta ideiek mendiak mugi ditzaketela. Baina jendartean batez ere geratuko dena da Omnium Cultureko presidentziatik egin zuen lana, hain zuzen ere, Katalunia sartua dagoen aldaketa politikoa kaletik bultzatzea. Carme Forcadellekin batera, hutsik gabeko tandem osatu zuten gizarte antolatu eta politika instituzionalaren arteko bisagra lan konplexua egiteko. Beti jakin zuen bere tokian egoten, eta unea iritsi zenean, pauso bat eman zuen aurrera Junts Pel Si-ko hautagaitzan parte hartzeko. Parlamentuan bere aurkari politikoen txera irabazten ere jakin zuen.

Horregatik guztiagatik ez da batere harritzekoa Muriel Casalsen heriotzak sortu duen zirrara, senideek jaso duten elkartasun oldea, eta atzo —igandean— herrialdeak puntarik punta zeharkatu zuen astindua.

Muriel Casals bazen jada erreferente etiko bat, herri batek bere askatasuna lortzeko borrokan ikur bat izateaz gain. «Ez gaude hemen amets bat bilatzeko, gu gara ametsa», esan zuen Casalsek Askatasunaren aldeko kontzertuan, 2013an. Denborak esango du bere helburua betetzen den. Baina gauza bat argi geratuko da: iristen bada, bere erara izango da. Elkarrizketaren eta ideien indarrarekin.

Iturria: *Berria* - http://www.berria.eus/paperekoa/2304/019/002/2016-02-16/muriel_casals_elkarrizketaren_indarra.htm

3. TESTUA:

Merke... eta ona?

Koro IRAZOKI

Dirua ongi zaindu behar dugula ederki ikasia dugu, eta gaur egungo egoera dela eta, gero eta kasu gehiago ematen dugu erosketak egiterakoan.

Baina hala ere, iduritzen zait merkeena erosi aitzin, gure buruari galdemodu batzuk egin beharko genizkiokeela. Adibidez: Zergatik dira hain merkeak arropa batzuk? gutti ordaindu eta egoera kaxkarrean lan egiten duen jende aunitzen sufrimenduari esker. Zergatik dira hain merkeak esne marka batzuk? ez dakit xuxen, baina erranen nuke gehienetan gure baserritarrak izaten direla kaltetuenak. Zergatik dira, gure herrietako denda ttikiak baino puskaz merkeagoak Txingudi, Itaroa... eta antzeko tokietako produktuak? enpresa izigarri potenteak direlako, eta bai ekoizleei eta baita langileei, nahi dituzten baldintzak jartzea posible dutelako. Gure denda tiki hauek aldiz, ez dute halako ahalmenik. Eta gisa honetako kasu franko aipatu ahalko ziren.

Honekin erran nahi dudana hau da: erosterakoan, prezioaz gain, bertze gauza batzuk ere kontuan hartu beharko genituzkeela.

Iturria: *Ttipi-Ttapa* aldizkaria - <http://ttipi->

ttapairitzia.blogspot.com/es/search/label/NT%20%20Koro%20Irazoki

4. TESTUA:

Arantzan, 2016ko maiatzaren 3an

Alkate agurgarria:

Larreta auzoan bizi naizen bizilagun bat naiz eta orain dela hiru egun etxera iritsi zaigun eskutitza dela eta zuregana zuzentzen naiz. Bertan irakurri ahal izan nuenez, gure auzoko farola guztiak kendu behar dituzue, gastu handiegia izanik neurriak hartzen ari baitzarete. Erabaki honekin ez nagoela ados jakinarazi nahi nizueke. Horretarako, jarraian nire argudioak azalduko dizkizuet.

Lehenik eta behin, gure auzoan ditugun farola kopurua eta bertan bizi garenon kopurua orekatua dela iruditzen zait, hots, beharrezkoak ditugun farola kopuruak ditugu, ez gehiago, ez gutxiago. Gainera, farolak auzo guztian zehar banatuak daude eta bata bertzearengandik premiazko distantziara. Ez dago gehiegizko neurririk ez kantitate ezta distantzia aldetik ere.

Bigarrenik, farolak auzotarron ongizatearen parte direla azpimarratu nahi nuke. Batek baino gehiagok eguna argitu aitzinetik lanera joan behar izaten du, eta bertzeek, berriz, eguna ilundu ondotik etxeratu. Honetaz gain, adineko jendea ere badago auzoan, eta eguna laburra denean eguzki argiaren laguntzarik ez badugu ere, egunak aitzinera segitzen du. Inongo

argirik ez badugu, egunak ezin izanen du gure auzoan segitu.

Hau guztia erran ondoren, azken hitza eman baino lehen Larreta auzoko bizilagunen iritzia kontuan hartzea eskatzen dizugu . Badakigu ez garela garai errazak bizitzen ari, baina gastu hau murriztu ezinezkoa dela deritzogu.

Aldez aurretik eskerrak emanez, zure erantzunaren zain gelditzen gara.

Adeitasunez,

Luzia Iparragirre

Orain, aukeratu testu bakoitza zein generori dagokion. Talde handian zuzenketa egiterako orduan, bozeramaileak izanen dira hitza izanen dutenak:

| GENEROAK | 1. TESTUA | 2.TESTUA | 3.TESTUA | 4.TESTUA. |
|-------------------------|------------------|-----------------|-----------------|------------------|
| EDITORIALA | | | | |
| IRITZI-ZUTABEA | | | | |
| IRITZI-ARTIKULUA | | | | |
| IRITZI-GUTUNA | | | | |

2. JARDUERA: Iritzi artikulua eta iritzi-gutuna

Guk erabiliko dugun testu-generoa iritzi-gutuna izanen da. Iritzi-gutuna, argudioak dituen heinean, argudio testu bat ere bada, iritzi-artikulua bezalaxe; baina, zein da bien arteko aldea? Hau ikusteko, ekar ditzagun lerrootara goiko bi testuak.

IRITZI ARTIKULUA:

Merke... eta ona?

Koro IRAZOKI

Dirua ongi zaindu behar dugula ederki ikasia dugu, eta gaur egungo egoera dela eta, gero eta kasu gehiago ematen dugu erosketak egiterakoan.

Baina hala ere, iduritzen zait merkeena erosi aitzin, gure buruari galdemodu batzuk egin beharko genizkiokeela. Adibidez: Zergatik dira hain merkeak arropa batzuk? gutti ordaindu eta egoera kaxkarrean lan egiten duen jende aunitzen sufrimenduari esker. Zergatik dira hain merkeak esne marka batzuk? ez dakit xuxen, baina erranen nuke gehienetan gure baserritarrak izaten direla kaltetuenak. Zergatik dira, gure herrietako denda ttikiak baino puskaz merkeagoak Txingudi, Itaroa... eta antzeko tokietako produktuak? enpresa izigarri potenteak direlako, eta bai ekoizleei eta baita langileei, nahi dituzten baldintzak jartzea posible dutelako. Gure denda tiki hauek aldiz, ez dute halako ahalmenik. Eta gisa honetako kasu franko aipatu ahalko ziren.

Honekin erran nahi dudana hau da: erosterakoan, prezioaz gain, bertze gauza batzuk ere kontuan hartu beharko genituzkeela.

IRITZI - GUTUNA:

Arantzan, 2016ko maiatzaren 3an

Alkate agurgarria:

Larreta auzoan bizi naizen bizilagun bat naiz eta orain dela hiru egun etxera iritsi zaigun eskutitza dela eta zuregana zuzentzen naiz. Bertan irakurri ahal izan nuenez, gure auzoko farola guztiak kendu behar dituzue, gastu handiegia izanik neurriak hartzen ari baitzarete. Erabaki honekin ez nagoela ados jakinarazi nahi nizueke. Horretarako, jarraian nire argudioak azalduko dizkizuet.

Lehenik eta behin, gure auzoan ditugun farola kopurua eta bertan bizi garenon kopurua orekatua dela iruditzen zait, hots, beharrezkoak ditugun farola kopuruak ditugu, ez gehiago, ez gutxiago. Gainera, farolak auzo guztian zehar banatuak daude eta bata bertzearengandik premiazko distantziara. Ez dago gehiegizko neurririk ez kantitate ezta distantzia aldetik ere.

Bigarrenik, farolak auzotarron ongizatearen parte direla azpimarratu nahi nuke. Batek baino gehiagok eguna argitu aitzinetik lanera joan behar izaten du, eta bertzeek, berriz, eguna ilundu ondotik etxeratu. Honetaz gain, adineko jendea ere badago auzoan, eta eguna laburra denean eguzki argiaren laguntzarik ez badugu ere, egunak aitzinera segitzen du. Inongo

argirik ez badugu, egunak ezin izanen du gure auzoan segitu.

Hau guztia erran ondoren, azken hitza eman baino lehen Larreta auzoko bizilagunen iritzia kontuan hartzea eskatzen dizugu . Badakigu ez garela garai errazak bizitzen ari, baina gastu hau murriztu ezinezkoa dela deritzogu.

Aldez aurretik eskerrak emanez, zure erantzunaren zain gelditzen gara.

Adeitasunez,

Luzia Iparragirre

Arretaz irakurri eta, orain arteko taldeetan jarraituz, saia zaitetzte ondorengo taula erantzuten. Oraingo honetan, taldearen bozeramailea aitzinekoaren bozeramailea zenaren eskuinean dagoena izanen da.

| | IRITZI ARTIKULUA | IRITZI GUTUNA |
|---|-------------------------|----------------------|
| Zeinetan ageri da lekua eta data? | | |
| Zeinetan ageri da izenburua? | | |
| Zeinetan ageri da agur formala (sarreran edo amaieran)? | | |
| Zeinetan dago egilearen aurkezpena? | | |
| Zeinetan ageri da tesi edo iritzi bat? | | |
| Zeinek erraten digu esplizituki zein den testuaren helburua? | | |
| Zeinetan aurki ditzakegu tesi hau defendatzeko argudioak? | | |
| Zeinetan dago eskari bat? | | |
| Zein testu dago sarrera-garapena-ondorioa moduan antolatuta? | | |
| Zeinetan ageri zaizkigu egilearen izen abizenak sinadura gisa? | | |

3. JARDUERA: Iritzi-gutunaren osagaiak

Jadanik ikusi dugu zertan bereizten diren iritzi-artikulua eta iritzi-gutuna. Argiago edukitzeko, egin ezazue **iritzi – gutunaren** osagaien zerrenda. Oraingoan, bozeramaile bera mantenduko da.

- | | |
|-------|-------|
| ➤ ... | ➤ ... |
| ➤ ... | ➤ ... |
| ➤ ... | ➤ ... |
| ➤ ... | ➤ ... |
| ➤ ... | ➤ ... |

4. JARDUERA: Iritzi-gutuna eta iritzi-artikulua osatzen

Banaka eginen dugu lan oraingoan. Ondorengo lerroetan ariketa honetarako gaia zein den ikusiko dugu. Lehenik, **zure herriko alkateari iritzi-gutun** bat idatziko diozu gai hori baliatuz. Ondotik, saia zatez ***Ttipi-Ttapa* eskualdeko aldizkarian argitaratzeko iritzi-artikulua** osatzen.

- Arantzako Azkilarrea baserri auzoan bizi zaren baserritarra zara. Aspalditik auzoko pistak moldatzeko eskatzen ari zara, baina inork ez dizu kasurik egiten. Udaletxetik eskutitz bat iritsi zaizu Nafarroako Gobernuak diru-laguntza eman duela erranez, eta hau Eguzkialdea auzoko pistak moldatzeko erabiliko dutela. Adieraz ezazu erabakiarekiko duzu desadostasuna.

IRITZI-GUTUNA:

_____:

_____.

Lehenik eta behin, Azkilarreako auzotarrok laguntza hau jasotzeko egin ditugun ahaleginak azpimarratu nahi nituzke. Bi urte baino gehiago daramagu honen esperoan, eta gure beharrak zuengana eta Nafarroako Gobernuarengana iristeko ahalegin handiak egin ditugu: eskutitzak bidali dizkizuegu gure bide eta pisten egoera zein den ongi azalduz, auzoko bide eta pistei eta hauen egungo egoerari buruzko txostena egin dugu, eskualdeko irrati eta prentsarekin komunikatu gara, Nafarroako Gobernura joateko prest egon gara... Auzotarrok gure auzoa moldatzeko beharra dugu, eta honen alde lan egiteko prest gaude.

Bigarrenik, auzoko pistek duten egoera zeinen tamalgarria den nabarmendu nahi nuke, batez ere mendietara doazenena. Bazterretako belar eta sasiak ez gailentzeko gogor egiten dugu lan, baina gure ahalegina ez da nahikoa: ustekabeen eta egun batetik bertzeraturak izugarriko aldaketa egin dezake eta guk eginikoa desagerrarazi. Gainera, zenbait mendietara iristeko gure auzoko pistetatik pasatzea beharrezkoa da, ez baita bertze biderik, eta momentu honetan dauden bezala, behintzat, garraio bide gutxi batzuk soilik pasa daitezke bertatik. Bidea zakarra eta arriskutsua da.

IRITZI-ARTKULUA:

Bidezkoa al da bi urtez diru-laguntza hau lortzeko ahaleginak egin eta orain esku hutsik gelditu behar izatea? Honen esperoan egon gara. Hau lortzeko lan egin dugu: Herriko Etxera eskutitzak bidali ditugu auzoko bide eta pisten egoera zein den azalduz, auzoko bide eta pistei eta hauen egungo egoerari buruzko txostena egin dugu, eskualdeko irrati eta prentsarekin komunikatu gara, Nafarroako Gobernura joateko gure burua eskaini dugu... Auzoa zaintzeko, mantentzeko eta bertako bizitzak aitzinera segitzeko beharrezkoa da diru-laguntza hau, eta

honen alde eta behar denarekin batera lanean segitzeko prest gaude.

Begiak altxatzea bertzerik ez dugu mendi zoragarri inguratuta gaudela ikusteko. Mendi hauetaz gozaten segitzeko, ordea, zaindu egin behar dira. Arantzako mendi ezagunenetako batzuetara joateko bide bakarrak gure auzoan daude, Mendaur edo Ekaitza, horien artean. Auzotarrok ahal dugun guztia egiten dugu bide hauek zaintzeko eta ongi mantentzeko, baina naturaren indarra ikaragarria dela ez da erran beharrik: ustekabeen guk eginiko lana iraultzen du eta bere bidea segitu. Momentu honetan, bide horiek horrelaxe segitzen badute, horrelako lekuetarako garraio bide egokiak dituztenak soilik lortuko dute bertatik pasatzea.

_____.

2.MODULUA: Iritzi – gutunaren agurra, sarrera eta ondorio atalak

1. JARDUERA: agurra, sarrera eta ondorio atalak identifikatzen

Orain arteko lan-talde berekin jarraituko dugu. Ondorengo iritzi-gutun hau irakurri ondotik, hasiera eta amaiera formulak identifika itzazue:

Lesakan, 2016ko maiatzaren 3an

Eskolako Zuzendaritza Taldea:

Amaia Lukanbio Larretxea naiz, ikastetxe honetako 3. mailako D taldean dagoen Miren Elizegi Lukanbioren ama. Guraso Elkarteak jakinarazi digunez, jantokian kiwia ematen hasi behar omen dute. Gutun honen bidez, erabaki honekin ez nagoela ados adierazi nahi nizuke ondorengo arrazoi hauengatik.

Lehenik eta behin, gaur egun kiwiari alergia dioten pertsonak gero eta gehiago direla argi utzi nahi nuke. Nola ziurtatu dezakegu gure haurrek ez dutenik hau sufritzen? Eskolaren helburua gure haurrak zaindu eta inguru osasuntsu batean hezteka bada, denek behar eta ezaugarriak hartu beharko ditugu kontuan.

Gainera, adituek diotenez, alergia behar bezala ez tratatzeak ondorio kaltegarriak ekar ditzake. Ahoan ez ezik, hots, ezpain, mingain edo hortzetan, larru azalean ere sufritu daitezke bere ondorioak. Zenbait kasutan, digeritze aparatuan eragina izatera ere irits daiteke.

Beraz, goian aipatu ditudan argudio hauek kontuan izanik eta, batez ere, gure seme-alaben ongizateari begira, jantokian kiwiaren ordezkoko fruta bat ematea eskatzen dizuet.

Aldez aurretik eskerrak emanez, zuen erantzunaren zain gelditzen naiz.

Amaia Lukanbio Larretxea

Agurra eta sarrera atala:

_____:

_____.

Ondorioa eta bukaerako agurra:

_____.

_____.

Testua eta goiko lerroak ondoan dituzuela, saia zaitezte ondorengo taula hau betetzen. Zein datuk osatzen dute atal bakoitza? Ez ahantzi taldeko bozeramailea aukeratu behar duzuela zuzenketarako.

| EZAUGARRIAK | SARRERAN | ONDORIOAN |
|--|-----------------|------------------|
| AGURRA | | |
| ESKERRAK EMATEA | | |
| NORBERAREN AURKEZPENA | | |
| TESTUAREN GAIAREN AIPAMENA | | |
| NORBERAREN TESIA | | |
| ANTOLATZAILEAK (ondorioz, beraz, honenbertzez...) | | |
| ESKERA BAT | | |
| TESTUAREN HELBURUAREN AIPAMENA | | |

Taulan bildu dugun informazioa ondoko zerrenda honetara pasako dugu. Bozeramailea bera izanen da.

→ Iritzi-gutun baten **goiburuan eta sarreran** ondorengo informazioak agertu behar du:

- ...
- ...
- ...
- ...
- ...

→ Iritzi-gutun baten **amaieran eta agurrean** ondorengo informazioak agertu behar du:

- ...
- ...
- ...
- ...
- ...

2.JARDUERA: Sarrera atala osatzen

Zuen taldeekin segituz, osa itzazue segidan datozkizuen sarrera proposamen hauek falta den informazioa gehituz. Oraingoan, bozeramailea lehen zenaren eskuinean dagoena izanen da.

- Tantirumairu Ikastolako D.B.H 2. mailako ikaslea naiz. Urtero bezala, Ikastolaren Eguna antolatzekotan zabilatzatela entzun dugu, baina oraingoan jaialdia eskola orduen ondotik _____ hasiko _____ dela.

- Ez zaude erabakiarekin ados
 - Zure iritzari buruz hitz eginen duzu testuan
- Eskutitz honen bidez, Alde Zaharreko kaleetako izenak gaztelaniaz bakarrik jartzearekin ez nagoela ados adierazi nahi nizueke. Horretarako, jarraian azalduko dituzue zein diren nire argudioak.
-
-
-
- Iruñakoa zara eta Alde Zaharreko Estafeta kalean bizi zara
 - Berri hori *Noticias De Navarra* egunkarian irakurri duzu
- Mugikorra ikastetxea sartzeari debekatzen digun erabakiarekin ez nagoela ados helarazi nahi nizueke gutun honen bidez.
-
-
-
- Iturrama BHI-ko batxilergoko lehenbiziko mailako ikaslea zara
 - Ikastetxeko web orriaren bidez izan duzu erabakiaren berri
 - Idatziko duzun gutunean zure iritzia argudioen bidez defendatuko duzu
- Aspalditik enpresa honetako laugarren sekzioan lanean nabilen langilea naiz. Jarraian, hartu duzuen erabakiarekiko dudan iritzia defendatuko dut.
-
-
-
- Hartu duten erabakia enpresako lan orduak aldatzea izan da langileek bazkaltzeko tarte handixeagoa izan dezaten
 - Ados zaude erabakiarekin
 - Erabakiaren berri langile bakoitzari iritsi zitzaizuen postaren bidez izan duzu

3.JARDUERA: Ondorio eta bukaerako agurraren atala osatzen

Zuen taldeekin segituz, errepara iezaiozue segidan datozkizuen amaiera proposamen hauetara. Saia zaitetzte oker dagoena identifikatzen eta zuzentzen. Atal honen zuzenketarako bozeramailea orain arte izan ez dena izanen da.

- Ondorioz, uste dut gipuzkoarrak ez dutela Nafarroara etorri behar ondoak biltzera. Nafarroan sortzen badira gureak dira eta ez dute eskubiderik ezer ordaindu gabe gure ondoak biltzeko.

Bertzerik gabe, behin bada ere kasu egingo didazuela espero dut eta behingoz neurriak hartzea!

Bertzerik gabe, agurtzen naiz.

Amaia Etxeberria

Oker dagoena: _____

Zuzenketa: _____

- Hau guztia erranda, nire ustez gauzak bertze modu batera egin beharko liratekeela argitu nahi nuke. Lehen erran dudana bezala, guraso anitz asteburutan lanean daude eta kultur etxeko larunbat goizetako ludoteka zerbitzua beharrezkoa da familia hauentzat. Non utzi, bertzela, seme-alabak? Are gehiago, arrazoi berri bat gehituko dut: lanpostu berriren bat eskaintzeko aukera ezin hobea da hau.

Bertzerik gabe, eskerrik asko zuen arretagatik.

Agur.

Eneritz Goikoetxea Bizente

Oker dagoena: _____

Zuzenketa: _____

- Azkenik esango dut nire herrian garraio publikoa jartzearen alde nagoela.

Agur.

Oker dagoena: _____

Zuzenketa: _____

- Hau guztia azaldu ondotik, ikas – bidaia egitea gustatuko litzaigukeela erran nahi genizueke.

Agur bero bat,

Oker dagoena: _____

Zuzenketa: _____

4. JARDUERA: Sarrera, agurrak eta ondorio atalak sortzen

Oraingo honetan, bakarka eginen dugu lan. Jarraian, zure herriko alkateari zuzenduriko gutun bat daukazu. Gutunari, lekua eta data, hasierako agur formala eta sarrera atal falta zaio, baina. Emaiozu sarrera egoki bat aitzinetik egindako ariketak kontuan hartuz.

| | |
|---|-------|
| | _____ |
| _____: | |
| _____ | |
| _____ | |
| _____ | |
| _____ | |
| <p>Lehenik eta behin, besta hauek duten tradizioa azpimarratu nahi nuke. Aurtengoa 20 edizioa izanen litzateke, eta 20 urte luze hauetan jende anitz pasatu da antolakuntzatik. Eta ez antolakuntzatik bakarrik, baita herri-bazkari, kalejira eta plazako herri kirol emanaldietatik ere. Denak, beti, irribarre batekin eta jaiiaz gozatzeko prest.</p> <p>Bigarrenik, egun berezi hauek auzotarrantzat zeinen garrantzitsuak diren azaldu nahi nuke. Urtean behin, auzotar guztiak ez bada gehienak, behintzat, mahai inguruan elkartzen gara, aspaldiko kontuei buruz solasean ari, aspaldi ikusi gabekoak agurtu... Auzoko zaharrentzat etxetik ateratzeko eta garai zaharrak oroitzeko aitzakia da; gaztetxoentzat, berriz, bizilagun zaharrez eta zaharrekin ikasteko garaia.</p> <p>Hau guztia azaldu ondoren, garbi utzi nahi nuke auzoko festak antolatzearen alde nagoela. Ulertzen dut ez direla inorentzat garai errazak, ezta udaletxearentzat ere, baina</p> | |

herriko tradizio eder honi bertze aukera bat ematea nahi nuke.

Aldez aurretik eskerrak emanez, zuen erantzunaren zain gelditzen naiz.

Amets Zubiri Nuñez, Urritzokieta auzoko besta batzordeko kidea.

Bakarkako lanean segituko dugu. Jarraian zure ikastetxeko zuzendariari zuzendutako gutun bat daukazu. Behar bezala bukatu gabe dago, baina. Emaiozu amaiera egoki bat aitzinetik egindako ariketak kontuan hartuz.

Beran, 2016ko abenduaren 5ean

Zuzendari agurgarria,

Maidar Hiribarria Eulate naiz, ikastetxeko honetako Batxilergoko lehenbiziko mailako 1-E taldeko ikaslea. Ikasleen ordezkaria naizenez, nire ikaskide guztien izenean zuregana zuzentzen naiz abenduaren 21ean ospatuko dugun San Juan Bosko eguneko jaialdiaren inguruan ditugun arazoei buruz mintzatzeko.

Jadanik abenduan sartuak gara eta, bertze urteetan bezala, hasiak gara San Juan Bosko deituriko jaialdia antolatzen. Urtero bezala, futbol eta saskibaloia partiduak, mus txapelketa, *show*-a eta bertze hainbat ekitaldi izanen dira. Oraingo honetan ere, kiroldegian jokatuko dira kirol txapelketak, baina aurten, bertze urteetan gertatu ez zaigun arazo batekin egin dugu topo: ikasleok ezin izan dugu hamaiketakoarekin kiroldegian sartu.

Egia da institutuko ikasle guztiok kiroldegian gure hamaiketakoak jaten egoten bagara ez dela sartu garenean bezain garbi geldituko, baina 20 minutuko atsedena hori bakarrik dugu gure hamaiketakoak jateko. Gainera, ia ezinbertzekoa da zerbait jatea, goizeko 7:30etatik ezer jan gabe egoten baikara.

Bertzalde, argi utzi nahi genuke antolatzen ditugun txapelketak ez direla bertan jokatzeko dutenek gozatzeko bakarrik eginak, ikusleek zein antolatzaileek eurek ere disfrutatzea gustatuko litzaiguke. Zer zentzu du gure ikaskideak jokatzeko ari diren bitartean gainerako guztiak kanpoan egon behar izateak?

3.MODULUA: Modalizazioa

1.JARDUERA: Nola egin eskari bat?

Talde-lanean ariko gara oraingoan ere. Irakurri arretaz ondorengo testua eta hausnartu beltzez nabarmendutako zatien inguruan. Hautatu zein izanen den taldeko bozeramailea.

Etxalarren, 2016ko maiatzaren 9an

Alkate agurgarria,

Amets Zubiri Nuñez nauzue, Urritzokieta auzoko besta batzordeko kidea. Orain dela egun batzuk bidali zeniguten eskutitzean, Udaletxea egiten ari den murrizketen artean gure auzoko bestek egonen direla erran zeniguten, aurtengoan ezin izanen ditugula ospatu. Urritzokietako auzotar eta, batez ere, batzordekide naizen aldetik, erabaki honekin ez nagoela ados adierazi nahi nizueke.

Lehenik eta behin, besta honek gu guztiontzat izugarrizko garrantzia duela azpimarratu nahi nuke. Auzoa eta, azken finean, herria bera bizitzen duen eguna izateaz gain, ziur nago auzotar guztiok gozatzen ditugun egunak direla. Eta ez auzotarrak bakarrik, noski ezetz; baita herritar guztiak ere. Mahai inguru horretan izaten den giroak ez du parekorik: zahar eta gazte, kanta eta dantza, jan eta edana... Benetan harrigarria da zuek hau ez baloratzea.

Bigarrenik, tradizioa duen jaialdia ere badela nabarmendu nahi nuke. 20 urte dira jada hau ospatzen dela, eta antolatzaileak lanean jarraitzeko gogoz gaude. Aitzineko urteetan, auzotarrez gain, herritarren parte-hartzea ere handia izaten da, eta ziur gaude aurtengoan ere hala izanen dela. Aurtengoan ere aitzinera jarraitzen badugu, hurrengo urteetarako ere bidea zabalik izanen dugu.

Hau guztia azaldu ondoren, **garbi utzi nahi nuke auzoko festak antolatzearen alde nagoela. Ulertzen dut ez direla inorentzat garai errazak, ezta udaletxearentzat ere, baina herriko tradizio eder honi bertze aukera bat ematea nahi nuke.**

Aldez aurretik eskerrak emanez, zuen erantzunaren zain gelditzen naiz.

Amets Zubiri Nuñez, Urritzokieta auzoko besta batzordeko kidea.

- Ziurtasunez ari al da igorlea?
- Igorleak ematen al du bere iritzia?
- Igorleak egiten al du eskaririk? Nola egiten du eskari hau?

2.JARDUERA: Eskatzailearen jarrera

Auzi baten inguruan eraiki duen iritziaren ondotik, iritzi-emaileak eskaera zehatz bat egin dezake, baina kontuan izan behar da hartzaileak onartzeko moduan egitea komeni dela.

Zuen taldeekin jarraituz, saia zaitetzte ondorengo taula betetzen. Eskariak egiteko zein modu iruditzen zaizue onargarriagoa izanen dela iritzi-gutuna jasotzen duenaren aldetik? Markatu ixa zeinuarekin onargarria edo ez-onargarriak iruditzen zaizkizuen formak eta adierazi zergatiak. Bozeramailea aitzineko ariketan zenaren eskuinean dagoena izanen da.

| | ONARGARRIA | EZ- ONARGARRIA | ARRAZOIA |
|--|------------|-------------------|----------|
| Beraz, ez ezazue uniforme jarri eskolan. | | | |
| Aurreko guztiaren ondorioz, uniforme janztera derrigortzearen aurka nagoela adierazi nahi dut berriz ere. Beraz, egun daukagun egoerari eustea eskatu nahi diot zuzendaritza taldeari. | | | |
| Zuen proposamena astakeri hutsa dela argi dago eta beraz, hala erabakita ere, ez dut inoiz jaramonik egingen. | | | |
| Espero dut zuek gure iritzia kontuan hartuko duzuela eta ez gurasoena, ez baitakite guk zer behar dugun. | | | |
| Beraz, uniformearen erabilera aitzinera ez eramatea erregutzen dizuet, mesedez eta arren. | | | |
| Hortaz, goian aipatu ditudan argudio hauek kontuan izanik eta, batez ere, gure seme-alaben ongizateari begira, jantokian kiwiaren ordezkoko fruta bat ematea eskatzen dizuet. | | | |
| Ondorioz, ikasleonek hitzari behingoz jaramon egin eta honetarako bada ere gure iritzia kontuan hartuko duzuela espero dut. | | | |
| Azaldutako guztiagatik, uniformearen erabileraren aurka nagoela adierazi nahi nuke. | | | |

| | | | |
|---|--|--|--|
| Ondorioz, ikastetxean orain arte bezala jarraitzea eskatzen dizuet. | | | |
|---|--|--|--|

3.JARDUERA: Eskariak birformulatzen

Banaka lan eginen dugu oraingoan. Zein hizkuntza-baliabide erabil ditzaket eskaria adierazteko? Errepara itzazu ondoko eskariak eta, antzeko baliabideak erabiliz, asma ezazu bertze bat bakoitzarentzako.

- Jakina, ez da erraza izango guztion iritziak kontutan izanda erabaki bat hartzea, baina goian adierazitakoaren ondotik, espero dut proposamen hori ez dela bere horretan behintzat aitzinera eramanen.

- Nonbait, ikasleok ikasbidaia egiteari uzteko eskaerak jaso dituzu gurasoen aldetik, eta, zalantzarik gabe, kontuan izatekoa da gurasoen kexen sorburua, baina pena litzateke guretzat hain hezigarria eta, era berean, ludikoa den ekintza bertan behera geratzea bertzerik gabe.

- Badakigu ez garela garai errazak bizitzen ari eta, dudarik gabe, Udaletxearentzat ere zaila izanen dela egoera honi aurre egitea. Hala ere, azken hitza eman baino lehen, Larreta auzoko bizilagunon iritzia kontuan hartzea eskatzen dizugu. Ziur egon, guk gure esku dagoen guztia eginen dugu proiektu aberasgarri honekin jarraitzeko.

- Jakina denez, herriko tradizio honek historia luzea du bere gibelean; eta ez hori bakarrik, parte-hartze handiko ekintza ere bada. Beraz, herriaren historia eta, bide batez, bizitasuna mantentzen jarraitzeko, besta hau antolatu eta ospatzeko baimena eskatzen dizugu.

4.MODULUA: Bukaerako ekoizpena

1. JARDUERA: Zure txanda!

Bakarka, zure ikastetxeko zuzendariari iritzi-gutun bat idazteko unea iritsi da. Oroitu kontrol-zerrenda balia dezakezula.

EBALUAZIOA:

Hona hemen moduluetan landu eta barneratutako ezagutzak bildu eta laburbiltzen dituen kontrol-zerrenda. Irakasle nahiz ikasleek erabil dezakete.

| IKASLEAREN IZENA: | HASIERAKO EKOIZPENA | | BUKAERAKO EKOIZPENA | |
|---|---------------------|----|---------------------|----|
| | BAI | EZ | BAI | EZ |
| Testu-generoaren osagaiak: | | | | |
| Lekua eta data | | | | |
| Hasierako agur formala | | | | |
| Bukaerako agur formala | | | | |
| Sinadura | | | | |
| Eskaria | | | | |
| Iritzi-gutunaren atalak: | | | | |
| Sarreraren atala | | | | |
| Argudioen garapena | | | | |
| Ondorioaren atala | | | | |
| Baliabide linguistikoak: | | | | |
| Eskari bidezko formulatzea | | | | |
| Eskaria onargarria (hartzailearen ikuspuntutik) | | | | |
| OHARRAK: | | | | |

5. ONDORIOAK:

Sarreran erran bezala, testu-generoa erreminta didaktiko gisa erabiltzeak esparru akademikorako eskaintzen dituen baliabide eta oinarriak azaldu nahi izan dira lan honetan. Testu-generoen artean argudio-testua izan da aukeratu dena, zehazki, iritzi-gutuna. Ikusi dugunez, Nafarroako Curriculum ofizialak eskari sozialari erantzun eta argudiatzeari bere lekua eskaintzen dio bai ahozko eta bai idatzizko edukietan. Hemen ikusi da testu-genero jakin bat aukeratzeko eta honen irakaskuntza egiteko arrazoiak izan badirela, Curriculumaren eskaria baita gizarte hedabideetatik eta kazetaritza esparrutik hartutako iritzi generoen bereizgarriak ezagutzea eta baloratzea.

Atal praktikoari dagokionez, Genebako eskolako metodologia espezifikoa aukeratu da: Sekuentzia Didaktikoa. Metodologia honek, irakasten ari garena eta honen oinarri eta ardatza testu-generoa dela bermatzeko, hiru irizpide bete behar ditu: zilegitasuna, egokitasuna eta elkartasuna (Larringan & Idiazabal, 2012). Lan honetan proposaturiko SDak hiru irizpide hauei jarraitu direla erran daiteke: batetik, Curriculumak erakusten du gure ikastetxeetan testu-genero hori lantzeko eskaria eta beharra badagoela, kazetaritza esparruko eta jardun sozialen erabileratik ikasgela barrura eraman behar baita argudiatze praktika, beti ere testu-generoaren baitan. Bertzetik, SDaren moduluetan landu diren jarduerak testu-generoaren araberakoak izan dira, iritzi-gutuna genero bezala erdigune eta ardatz izanik. Azkenik, SDaren modulu ezberdinek osotasun bat eratu dute, bakoitzak bere xede propioa izan badu ere, batean landutakoak hurrengoetarako ere baliatzeko aukera ematen baitute.

Halaber, ikasleei ematen zaien egoera komunikatiboaren garrantzia azpimarratu nahi genuke, kontsignaren garrantziaz ohartzeko balio izan baitugu lan honek. Kontsignak izan behar du ikaslearen ekoizpenaren gidari, eta interpretazio ezberdinak sortu ez daitezen, argia eta zehatza izan behar du. Riestraren (2004) ideia hona ekarri, irakaskuntzaren bitartekariak aztergai dituzten ikerketak elkarreraginaren bertzelako alderdien inguruan aritzen dira, bertzeak bertze, irakaskuntza metodologiak eta prozesu psikologiko eta pedagogiko orokorrak aztertuz. Autoreak, batez ere hizkuntzen irakaskuntza esparruan, argibideen formulatzeak sortzen dituen arazoak ikerketaren erdigunean jartzen ditu guri kontsignaren garrantzi eta pisuaz ohartzeko baliagarri izanik.

6. BIBLIOGRAFIA:

Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, (2016). *Bortziriak*. [online] Available at: <http://www.bortziriak.eus>. [Accessed 4 May 2016].

Calsamiglia, H. & Tusón, A. (2001). Los modos de organización del discurso. In: H. Calsamiglia and A. Tusón, ed., *Las cosas del decir*, 1st ed. Barcelona, 269-318.

Camelo, M. (2010). Las consignas como enunciados orientadores de los procesos de escritura en el aula. *Enunciación Vol. 15, Núm. 2*, 58-67.

Camps, A. (1995). Aprender a escribir textos argumentativos: características dialógicas de la argumentación escrita. *Comunicación, Lenguaje y Educación*, 7(2), 51-63.

Cuenca, M. J. (1995). Mecanismos lingüísticos y discursivos de la argumentación. *Comunicación, Lenguaje y Educación*, 25, 23-40.

Dolz Mestre, J. (2013). Los géneros textuales como unidad de trabajo. In: J. Dolz Mestre, R. Gagnon, S. Mosquera Roa and V. Sanchez Abchi, ed., *Producción escrita y dificultades de aprendizaje*, 1st ed. Barcelona: GRAO, 29-37.

Golder, C. (1996). *Le développement des discours argumentatifs*, 1st ed. Paris: Delachaux et Niestlé.

González, S. (2014). *Modalizazioa / Verbum*. [online] Verbum.idiomas.deusto.es. Available at: <http://verbum.idiomas.deusto.es/bas/modalizazioa/?lang=eu> [Accessed 24 Apr. 2016].

Larringan, L. M. (1992a). Argudio-bidezko testuen ebaluaketa. In: I. Idiazabal, J. Bronckart, L. Larringan, J. Dolz, A. Kaifer, I. del Valle and R. Arano, ed., *Pedagogía del texto - Testuaren pedagogia*, 1st ed. Bilbo: LABAYRU IKASTEGIA, 113-127.

Larringan, L. M. (1992b). Zenbait argudio-testu euskaraz. Azterketa eta Didaktikarako ohar batzuk. In: I. Idiazabal, J. Bronckart, L. Larringan, J. Dolz, A. Kaifer, I. del Valle and R. Arano, ed., *Pedagogía del texto - Testuaren pedagogia*, 1st ed. Bilbo: LABAYRU IKASTEGIA, 97-113.

Larringan, L.M. & Idiazabal, I. (2012). Sekuentzia didaktikoa: ekintza didaktikoaren zutabe eta ardatz minimoki fidagarria. *Ikastaria*, 18, 13-44.

Nafarroako Foru Komunitatea, (2016). *Batxilergoa. 25/2015 Foru Dekretua, apirilaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitatean Batxilergoko irakaskuntzen curriculumaz ezartzen duena - navarra.es*. [online] Navarra.es. Available at: http://www.navarra.es/home_eu/Navarra/Derecho+navarro/lexnavarra/IndicesPorDepartamentos/Educacion/Ensenanzas/Bachillerato/DF252015-05.htm [Accessed 5 May 2016].

Riestra, D. (2004). Las consignas. Su naturaleza. In: D. Riestra, ed., *Las consignas de trabajo en el espacio socio-discursivo de la enseñanza de la lengua*, 1st ed. Geneve: Universite de Geneve, 55-61.